

Herririk Herri |5|
Iurretako auzoetan eguzki-energia bidezko kale-argiak jartzen

Ekonomia |10|
CCOOko ordezkariak manifestazioa egin dabe "lanpostuen defentsan"



Berbaz |9|
J.M. Arrillaga: "DAZ elkarteak auzoko arazoak konpontzeko sortu zen".

Gaur erabakiko ditue 2009ko aurrekontuak

Durango • Hainbat ika-mikaren ondoren, Durangoko udalbatzak gaur erabakiko dau 2009 urteko aurrekontuak zertan diren. Orain hilabete, data honetan plenora ekartzea adostu eben. **2**

Puro Chileren kanta bizi eta koloretsuak entzungai Ateneoan

KULTURA • Elorrioko Ateneoan gaur dau Puro Chile taldeak disko barriko kanten estreinaldia. Taldea bera eta egiten dauen musika eza-gutzeko, Ateneoan bertan egin dogu elkarrizketarako hitzordua. **13**

Sasikoaren talde biek daukiez igotzeko aukera handiak

KIROLA • Sasikoa B espero baino hobeto dabil aurten, eta eskura ditu igoera postuak. Talde nagusia be sarri izan da lider, azken jardunaldian Dosanporrek lehenengo postua kendu eutsan arren. **24**



• **Zaldibar**
Mendiagarai alkateak lanaldi osoz jardungo dau **3**

• **Mallabia**
Erabiltzaileek kiroldegia goizez be zabaltzeko eskatu dabe **3**

• **Elorrio**
Ura moztuko dabe herri osoan, ur-hoditeria aldatzeko **7**

55 kaleratzeren kontrako mobilizazioak Layden

Durangoko Layde enpresako atarian kamioien sarrera oztopatu eban atzo hainbat beharginek.

Protesta ekitaldi honegaz zuzendaritzak proposatzen dituen 55 kaleratzeen kontra egin gura izan dabe.

Corus taldekoa den Layde enpresako 180 langileek erregulazio espediente pean dihardue azarotik. **10**



Laydeko enpresa komiteak ordu biko lanuzteak iragarri ditu datozen asteotarako. Kepa Aginako



HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Durangoko zinegotziak udalbatzarrean batu ziren atzo arratsaldean be. Iban Gorriti

2009ko aurrekontuak gaur eztabaidatuko ditue

EAJk aurrekontuetan izandako jarrera kritikatu dau oposizinoak

Aurtengo aurrekontuak erabakitzeke ez ohiko bilkura egingo dau gaur eguardian udalbatzak. 14 hilabete atzeratu diren aurrekontu honek ika-mika sortu dabe Udaleko alderdi politikoaren artean. Izan be, azkeneko udalbatzarrean aurrekontu prozesua zabaltzeko PSE-EEk aurkeztutako mozinoa onartu eben otsailaren 28a epemuga lez jarrita. Beraz, alderdi politikoek hilabete-

ko epea izan dabe aurrekontuaren inguruan eztabaidatzeko.

Alderdien balorazioak

Oposizino alderdiek Gobernu Taldearen jarrera salatu dabe. PSE-EEk "lotsagarria" deritzo Gobernu Taldea zirriborroa aurkeztera behartzeko mozinoa jarri behar izateari. EAJren plana "txarra" dela be kritikatu dabe sozialistek, eta batzorde batzutarra berandu hel-

Aurrekontuen eztabaida gaur eguerdiko 14:00etako udalbatzarrean egingo dabe

Joan zen hileko plenoan aurrekontuak erabakitzeke hilabeteko epea adostu eben

tzeaz kexu direla dino Pilar Rios zinegotzi sozialistak.

Talde mistoko zinegotzi Zorione Aranak adierazi dauenez, eztabaida honetan seriotasun falta izan da: "Aurrekontu parte-hartzaileak gura badoguz, ezin dogu hila-beteen arineketan ibili eta epe zehatz bat jarri. Gitxiago aurreko urteko luzapenagaz ibili eta gero".

PPk azaldu dauenez, "minorian gobernatzea ez dela erraza jakin arren, jeltzaleek ez dabe jakin etxeko lanak egiten".

Aralarrek jakin eragin dauenez, "denok erantzukizunez jokatu behar dogu, aurrekontuak ez badira onartzen herritarren kalterako izango da-eta".

EB-Berdeakeko zinegotzi Sabin Bilbaok, aurrekontuak erabakitzeke data jartzea ezinezkoa

dela azpimarratu dau: "Garrantzitsuena aurrekontu onak egitea da, ez data".

Kritika horreei erantzunez, EAJk erantzukizunez jokatu dauela dino. Aurrekontuen gaia hila-beteetan lantzen dihardueela eta alderdi guztiekin berba egin dabela argudiatu dabe. Jeltzaleengana-ko kritikak hauteskunde sasoiari lotuta dagozela be gaineratu gura izan dabe.

EAJk arduragaz jokatu dauela eta alderdi guztiekin bildu dela esanez erantzun deutse oposizinoak kritikei

Beraz, gaur eguerdian jakin-go dogu hainbeste eztabaida sortu daben aurrekontuekin zer ger-tatuko den.

Atzerapen proposamena

Aralarreko zinegotzi Dani Maeztuk aurrekontuak atzeratzea eskatzeak Alderdi Popularraren erantzuna jaso dau. Popularrek "interes pertsonal eta elektoralak herritarren interesen aurretik jartzea" leporatu deutse Maezturi.

Salaketa horri erantzunez atzerapena daukien aurrekontuak 20 egunean ezin direla erabaki eritzi deutso Maeztuk. Azaldu dauenez, "joan zen astean jakin-arazo euskuen Udalkutxara 2 milioi euro itzuli behar doguzela, eta horrek egoera asko aldatzen dau. Gauzak behar den moduan egin barik ezin dira aurrekontuak onartu". "Liberatuta dagoen zinegotzi bat eztabaida hau guztia ahotan darabilgun bitartean Karnarieta-ko karnabaletan egonda, nor dabil interes pertsonalak defendatzen?", galdetu dau Maeztuk. ■ J. G.

Larrasoloetako egoitza inauguratu dau Gerediagak

Igaztik dabilz beharrean egoitza barrian



Dantzariak be parte hartu eben inaugurazino ekitaldian. I. Gorriti

Gerediaga elkarteak Larrasoloeta kalean 'Onako txaleta' izenagaz ezagutzen dogun eraikinean kokatutako egoitza barriaren inaugurazino ofiziala egin eban joan zen eguaztenean. Haritz bat landatu eben, eta Nerea Mujika elkarte-ko lehendakariak berba batzuk esan zituen Gerediagaren ordezkari nagusi legez.

Karrika antzerki taldeko bi kidek Gerediagak urte osoan zehar antolatzen dituen ekintzen inguruko parodia eskaini eben bertaratutako aurrean. Luntx batekin amairu eben ospakizuna.

Gerediaga elkarteak orain arte Abadiñoko Astola auzoan izan dau egoitza. Leku ha mantenduko daben arren, bulego nagusia Larrasoloetan jarri dabe. Igazko Azoka antolatzerakoan Durangon bertan egoteak lana asko erraztu eutsela azpimarratu gura izan dabe. Durangoko Udalgaz sinatutako hitzarmenari esker, hurrengo hamar urteotan Gerediaga 'Onako txaletean' egon ahal izango da ■ Jone Guenetxea

Ur dastaketa ikastaroan hamabi lagun batu dira Saltsanek antolatuta



J. Fernandez

Uraren ezaugarriak bereiztu eta dastatzen ikasteko erizpideak azaldu zituen joan zen astean Patxi Zabala sukaldari bilbotarrak, Saltsanek Kurutzian daukan dendan. Tynnant eta Tanu Galesak eta Panna eta San Pellegrino urak izan zitueen edangai. Ondoren, janariagaz eta ardaoagaz be nahastu zitueen urak, arduradunek azaldu deuskuenez. Durangaldean ur dastaketa ikastaro bat antolatzen den lehen aldian hamabi lagun elkartu ziren. ■ J. G.



Orain hiru urteko terrazen lizentzien kuotak ezbaian

Ostalariak haserre dagoz 2006tik honako lizentziak ordaindu beharragaz



Ostalariak dinoenez, Udalak egindako "akatsa" eurek ordaindu beharko dabe.

Durangoko ostalariak arduratuta dagoz terrazen lizentzien inguruan Udalak hartutako azkenengo erabakiekin. 2005ean terrazen ordenantza onartu ebenetik ostalariak lizentzia eskaera egin dabe, baina, +Dendakeko arduradunek azaldu dabenez, "orain arte ez dabe erantzunik jaso". 2008ko azaroan 2006ko lizentzien ebazpenak heltzen hasi jakezela argitu dabe ostalariak.

Udalak argitu dauenez, orain arte ez dabe baliabide nahikorik izan lizentziak behar den moduan

tramitatzeko. Ostalariak ulergatxa egiten jake 2006tik aurrerako kuotak orain eskatzea. Terrazak jarri izan ditueela ez dabe ukatzen, baina tabernariak ez direla Udalaren "kudeaketa txarraren" erantzule dinoe +Dendakekoek.

Joan zen astean ostalarien eta udal ordezkarien artean egindako batzarrean terrazen gainean eztabaidatu eben. Udalak terrazak jartzen itziko dauela azaldu dau, baina "beharrezkoa izango da baimena lortzeko tramiteak egitea".

■ Jone Guenetxea

MALLABIA

Kiroldegia goizez be zabaltzeko eskatu dabe

Berrogei bat lagunek bete dabe eskaera-orria

Mallabiko kiroldegia zabaldu dabenetik, zenbait herritarrek goizez be kirol eskaintza eskuragarri edukitzeko eskatu dau. Gimnasioa goizez zabaldu daien eta ikastaroak be goizez emon daiezen eskatu dabe berrogei bat lagunek hileon. Horretarako, frontoian bertan eskaera-orria bete daiteke. Hilaren amaieran, orriok Udaletxean aurkeztuko ditue.

Martxoan frontoia erabili gura dabenek datorren astelehenean erreserbatu beharko ditue orduak

Mallabia I kiroldegia egun osoko ordutegia izango baleu, "lantegietan txandaka behar egi-

ten dabenek lagunek kirol instalazinoei etekin handiagoa atarako leuskie", azaldu dabe eskaera-orriak gehienek.

Orain Udalarik jagoko ordutegia handitzeak dakarren gastua neurtzea, kiroldegian kirol eskaintza goizez be eskaintzea bideragarria den ala ez jakiteko, eta, ondoren, azterketa horren araberrako erabakia hartuko dabe udal arduradunek.

Frontoia alokatzeko

Mallabiko frontoia alokatzeko erreserbak hilaren lehenengo egunean egiten dira. Horretara, martxoan frontoia erreserbatu gura dabenek martxoaren 2an eskatu beharko dabe, frontoia libre dagoen ordutegian jarduteko. ■ M.Gonzalez

+Dendak elkarteko eta Udaleko ordezkariak egoerari irtenbidea bilatzeko bilera egin dabe asteen

Ostalariak "ulergatxa" egiten jake krisi ekonomikoak jotako sasoiaren hiru urtetako lizentziak kobratzea

MAÑARIA

Hileko azken astebururako proposamenak

Otsailerako herrian antolatutako askotariko ekitaldiak jasotzen dituen egitarauko azken hitzorduak edozein adineko eta gustu askotarikoak ditueen herritarrendako aproposak izango dira. Bate-tik, gaur atal teorikoa izan dabene fruitu-arbolak hazkuntzari eta inauterari buruzko ikastaroaren atal praktikoa izango da bihar goizean: oinarri teorikoa praktikan jartzeko saioa izango dabe fruitu-arbolak hazten ikasteko ize-na emon dabenek.

Domekan gaztetxo enendako arratsaldeparako proposamenagaz bukatuko da otsaila: Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia izango da 17:00etatik aurrera frontoian, eta hurreratu-ko diren guztien artean txokolatea banatuko dabe gero. ■ I.E.

GARAI

Aldaketa egin dabe aurrekontuetan

38.500 euro gehiago sartzea erabaki dabe

Udalbatzarra egin eben atzo Garain, aurrekontuetan aldaketa bat egiteko asmoz. Aldaketa horrek San Migel kaleko urbanizazio-lanak ditu oinarrian; kale horretako espaloia moldatzeko egin beharreko lanen bigarren fasea, hain zuzen be.

Hasiera batean, ez eben aurrekontuetan txertatzea, baina proiektuaren lehenengo zatia martxan ipintzea posible izango da hemendik lasterrera, eta horrek ekarri dau aldaketa.

Izan be, Espainiako Gobernuak diru-laguntza emon deutso oraintsu Udalarik espaloien lehen fasea eraikitzeke, eta hori dela-eta bigarrenari be ekitea erabaki dabe. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko deusie diru-laguntza.

Guztiz beharrezkoa

Burututako aldaketa horretan 38.500 euroko diru kopuru gehituko dabe. Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkateak azpimarratu deuskunez, "aldaketa hori egitea guztiz beharrezkoa zen, bestela

ezinezkoa litzake proiektuagaz aurrera egitea".

Sagardotegira irteera

Bestalde, Garaiko herritarrek sagardotegira irteera prestatzen dabilz, martxoaren 14rako. Astigarragara joango dira, eta 35 euro balioko dau bidaiak, denera; autobusak eta menuak, hain zuzen be. Aurretiaz, baina, 10 euro ipini behar dira, fiantza lez, Garaiko elkartearen. Izena emoteko azken eguna martxoaren 8a izango da.

Goizeko 10:30ean irtengo dau autobusak plazatik, eta buelta gaueko 22:00etarako aurrekusi dabe. ■ M.O.

San Migel kaleko urbanizazio lanek eragin dabe aldaketaren beharra

Proiektuaren lehen zatia martxan ipintzea posible izango da laster, eta horrek ekarri dau aldaketa

ZALDIBAR

Lanaldi osoz jardungo dau Idoia Mendiolaragaik

Egunean zazpi orduko lanaldia beteko dau

Udalbatzarrean aho batez onartutako neurria da Idoia Mendiolaragaik alkateak Udalean lanaldi osoz jardutea. Egunean zazpi orduko lanaldia beteko dau horrenbestez alkateak, eta 3.698 euroko soldata zehaztu dabe; urtean 14 ordainketatan. Goizeko 08:00etatik 15:00ak arteko laneguna izango dau Mendiolaragaik Udalean. Alkate jeltzaleak

Alkatearen egun osoko dedikazioa beharrezko ikusten dau oposizioak be

berak nabarmendu gura izan eban, baina, postu horrek eskatzen dauen dedikazioa eguneko 24 ordukoa dela, eta ardura horri erantzungo deusala.

Gobernu Taldearen proposamenaren alde bozkatu eben udalbatzarrean oposizioa alderdiek be, eta euren jarrera azaldu. EAK "beti egon gara horren alde" adierazo eban. PSEK, barriz, "aurreko legegintzandian be alkatearen liberazioaren alde egin genduen" erantsi eban, "alkateak Udalean egoteko denpora izatea ona dela uste dogulako". ■ I.E.

Podología

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología 188. Eraginidea

BEHERAPENAK

MERKATARITZA SARI NAZIONALA 2008

DESKONTU BEREZIAK
SAIL GUZTIETAN
DOAKO FINANTZIAZIOA


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO
www.bautistamuebles.com



Zer nahi duzu, sukalde bat ala zeure sukaldea?



BEHERAPENAK: URTARRILAREN 12tik MARTXOAREN 11 ARTE

ADITUAK GARA SUKALDE ETA EGONGELAK
EGITEN DUELA 40 URTETIK HONA

GURE ABADIÑOKO ERAKUSKETA ETA GURE DESKONTU BEREZIAK
EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU

Urbite poligonoa, 4.eraikina, pab.2 ABADIÑO Tel. 94 681 35 19



IURRETA

Eguzki-energia darabileen kale-argiak jartzen auzoetan

Igaz Orozketan egin eben lez, aurten Lukun eta Gaztañatzen jarriko ditue



Orozketan birziklatzeko edukiontzia ipini eta 15 autorentako aparkalekua egin dabe.

Aurten auzoetako azpiegituren hobekuntza lanekin jarraituko dau Udalak. Azaldu dabenez, Lukun eta Gaztañatzen eguzki-energia bidezko kale-argiak ipiniko ditue. 30.000 euroko bideratu ditue horretarako.

Faustoko lanak burutzeko 120.000 euroko atala aurreikusiko dabe; 70.000koa Iturburuko egiteko

Gaur egun San Marko, San Andres, Orozketan eta Beko-Errotan dagoz horrelako kale-argiak, eta errentagarriak irtetzen dabenez, beste auzuneetan be bardin egitea erabaki dabe. Horrez gainera, Uribe eta Uribeondon-Faus-

te inguruan- eta Iturburun base-ri-bideak konponduko ditue. Bideak leuntzeaz gainera, urak bideratzeko azpiegiturak sortuko edo hobetuko ditue. Fauste inguruko lanek 120.000 euro inguru eroango dabe, eta Iturburukoek, berriz, 70.000 bat euro.

Igazko proiektuak

Auzuneetako azpiegiturak hobetzeko lau proiektu ipini zitueen martxan igazko azaro inguruan, eta hile honetan amaitu ditue. Guztira, 300.000 euro erabili ditue.

Orozketan 15 autorentako aparkalekua egin dabe eta hesi arkitektonikoak kendu

Oromiñon eta Bakixan asfaltoa barrizatu dabe, eta bideetako urak bideratu ditue. Oromiñon zubi bi be badagoz, eta horreetan altzairu herdoilgaitzeko barandak ipini ditue.

Beko-Errotan eguzki-energia bidezko hiru kale-argi ipini eta bideetako urak bideratu ditue.

Azkenik, Orozketan zerbitzu gunea egin dabe: birziklatzeko kontainerrak ipini ditue, 15 autorentako aparkalekua egin dabe -horreetako bat elbarriendako- eta eguzki-energia bidezko kale-argiak ipini ditue. Txoko inguruan zegoen hesi arkitektonikoak be kendu ditue, irisgarritasun neurriak betez. ■ J.D.

Erabiltzaile kopuruak gora Bibliotekan

Urtetik urtera Iurretako Bibliotekako erabiltzaile kopuruak gora egin dau. 2008an ia 13.000 mailegu egin zitueen. Aurtengo lehenengo hile bietan, berriz, igaz denpora tarte berean baino 300 mailegu gehiago egin ditue. Igoera hori, neurri handi batean, aurten martxan ipinitako zerbitzu birengatik emon da: fonoteka eta bideoteka; harre-ona izan dabe biek.

Mikrotekak be erabiltzaile asko izan ditue. Herritarren zerbitzura jarritako ordenagailuetan ibiltzeko 3.000 eskari izan zitueen igaz. Aurten erregistro kopurua be handituko da; 16.000tik 20.000ra. Gaur egun, bibliotekak 1.627 bazkide ditu eta ia denak iurretarrak dira (biztanleen %42).

Fonoteka eta bideoteka zerbitzu barriek harrera ona izan dabe; mikrotekak 3.000 erabiltzaile izan zituen igaz

Aspaldiko asmoa da liburutegia Abadetxera tokialdatzea. Baina oraindino ez dabe Jaurialitzako Uren Saileko txostenik jaso, eta horren zain dagoz Abadetxeagaz negoziatzeko. ■ J.D.

eragin eta aldatu

bozkatu

Dani Maestu Aintzane Ezenarro Mikel Bozabe

www.aralar.net

ezkerreko alternatiba abertzalea **aralar**

ELORRIO

Ehun lagun inguru urteurren bazkarian

All Jazz Era eta Laket taldeek jente asko batu eben

Joan zen zapatuan 21 urte bete zituen Elorrioko Gazteak, eta egun osoko jaia antolatu eben urteurrena ospatzeko. Goizeko ekitaldien ondoren, kiroldegiko frontoian ehun lagun batu ziren bazkaritara.

Bazkalostean egindako erri-faren zozketan Libe Mimenzari

Bazkalostean, errifen zozketa egiteaz gainera, urtero legez, joko bitxiak egin zitueen kiroldegiko frontoian

egokitu jakon saria: asteburu bat aterpetxean eta multiabentura jardura bat.

Ondoren, urteroko joko bitxiak egin zitueen. Bertaratu zirenen artean bazkaritan zenbat esne, berakatz edo garagardo erabili edo kontsumitu eben asmatu ebanak kanpaldiko kita edo antzeko sariak irabazi zituen.

Arratsaldean kalejiran irten eben, eta iluntzean Gaztetxean batu ziren berriro, All Jazz Era eta Laket taldeen kontzertuekin gozatzeko. Jente asko eta giro ona izan eben kontzertuetan. ■ J.D.



Hainbat lagun mozarrotuta joan zen bazkarira. K. Aginako

ATXONDO

Herri-basoak interes publikoko izendatu ditue

Anbotoko lur eremuari eragiten deustso neurriak

Udalbatzarrean aho batez onartu dabe Udalaren jabetzakoa den Anboto mendiko lursaila interes publikoko izendatzea. Azaldu dabenez, beronen kudeaketaren ardura Bizkaiko Aldundiak hartuko dau ondorioz. Udalbatzarren onespena izan dauen trami-

Erabaki horrek ahalbidetuko dau Bizkaiko Aldundiak bere gain hartzea baso horreen zaintza eta sustapena

Lorategiak eta bideak enpresa beraren kargu

Herrigunean eta auzuneetan lorategiak eta auzobideetako bazterrak garbitu egiten dira, maiztasunez, inguruak txukun mantentzeko. Elorrioren orain arte enpresa ez barden eskuegon da lan hori. Elorrioko Udalak lan horreek zerrendatu, planifikazinoa egin eta enpresa bakarraren esku iztea erabaki dau.

Modu horretara, dirua aurreztuko dabela uste dabe. Lan horreek lehiaketa publikoan jarri ditue, 159.000 euroan. Hori xe da aurten arte lan horreetara bideratzen eben dirua, eta lehiaketan eskaintza hobek egongo direla itxaroten dabe.

Gune berdeak gehitu dira eta logikoa deritzoe denak enpresa baten esku izteari

Erabaki hori hartzeko beste arrazoi bat be badago. Elorrio hazi egin da azken urteotan, urbanizazio barriekin; Nizeto Urkizu iparraldean eta hegoaldean egindakoak, esaterako. Bizileku horreek euren gune berdeak ditue. Beraz, inoiz baino lorategi gehiago dago.

Bestalde, Espainiako Gobernuaren oniritzia jasota, eguazteneko udalbatzarrean onartu zitueen Esteibarlanda, Ibarra, Labakua eta Urarka kaleak urbanizatzeko proiektuak. ■ J.D.

ABADIÑO

Zelaietako eskolako matrikulazinoa

Ezker abertzaleak udalbatzarrera eroan dau gaia



Sostengua eskatu deustso eskolako zuzendariak Udalari.

Aste honetako udalbatzarreko galdeskarrien tartean, ezker abertzaleak mahaigaineratu dau Zelaietako eskolako matrikulazinoagaz sortu den arazoa: Hezkuntza Sailak zehazten dauen ratioa baino handiagoa izaten ari da matrikulazino eskaria. Bere taldeak ez dauela Zelaietako eskolari jagokoz ez elako informazinoarik jaso eta, azalpenak eskatu ditu.

Jose Luis Navarro alkateak erantzun dauenez, Hezkuntza Sailari ratioa zabaltzeko eskaria egiteko sostengua eskatu deustsie Udalari eskolakoe. Matrikula egin gura dabenguztiak hartu ahal

izateko zehaztutako kopurua handitzea ei da eskolako zuzendariak daukan helburua; Zelaietatik Matienako eskolara joan beharrik izan ez daien umeek, auzoan bertan geratu ahal izateko.

Udalbatzar berean, bestalde, batzordean aurretik adostuta, aho batez onartu dabe hezkuntza eta euskararako diru-laguntzak arautuko dituen ordenantza. ■ I.E.

Zelaietako eskolaren eskaria Hezkuntza Sailera helarazoko dauela dino Gobernu Taldeak

Udaleko behin-behineko lan-poltsa onartu dabe

Oposaketak deitu bitartean baliatuko dabe

Lanpostuen zerrenda urtarrean onartu eben Udalean. Horren arabera, postu bakoxtarendako baldintzak zehaztu zitueen, eta zerrenda horretan oinarrituta deituko ditue oposaketak hainbat hile barru. Hain zuzen be, oposaketak deitu ahal izan arte hileak

joango direla azpimarratu dau Cobos alkateak, eta ordura arte Udalean sortu leitekezen ordezkapenetan baliatu ahal izateko hiru lan-poltsa zabaldu dituela: administrazino laguntzailea, brigadako langilea eta haur hezkuntzako laguntzailea. ■ I.E.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERAKIA

ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

KALITATEA

Industrias tey

Trataera Termiko Bereziak eta Consulting - Teknika-Metalurgikoa

ALTZAIRU LASTERREAN

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Fax.: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infonegocio.com - www.infonegocio.com/industriatey



BERRIZ

Heziketa arloko lau ikastaro martxan

Ikastaro guztiak martxoan zehar garatuko ditue

Heziketa ardatz daben lau ikastaro abian dagoz. Hiru Learreta-Markina ikaste-txean dira, eta Bigarren Hezkuntzako Institutukoa martxoan hasiko da. Institutuan *Komunikazioa nerabeekin* izeneko ikastaroa

emongo dabe martxoaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean, 18:30etik 20:00etara. Udaletxean emon behar da izena, eta epea gaur amaitzen da.

Learreta-Markinan Otik 12 urtera arteko heziketaren gaineko hiru ikastaro dagoz. Lehenengo *Heziketa 0-3 urte bitartean* da. Bigarrenak, (3-6 urte bitartekoa) disziplina eta maitasuna ez direla kontrajarriak erakutsiko dau. Azkenak, gaztetxoekin bizikidetzaz zelan landu azalduko dau. ■ J.D.

Hiru Learreta-Markinan garatzen dabilz; laugarrena Institutuan izango da



Agintzari kooperatibak dauka ikastaroak garatzeko ardura. J.F.

OTXANDIO

Gazteek sagardotegira joateko plana egin dabe

Gazte Asanbladak martxoaren 7an sagardotegira bazkaltzen joateko urteera antolatu dau. Goizean irten eta gauerdian aldera bueltatzeko asmoa daukie. Gazte Asanbladak sagardotegi batean egunpasa anto-

latzen dauen lehenengo aldia da, eta "herritar guztiak animatzeko" deia egin dabe. Tiketak oraindino Otxandioko tabernetan erosi daitezke, 35 euroan; bazkaria eta autobusa ordainduko da horregaz.

IZURTZA

Arbolak landatzeko sasoiagaz bat

Horretarako sasoiagaz gogozelako eta Zuhaitzaren Egunagaz bat eginda, Udaleko ordezkariak azaldu dabenez, halan gura daben herritarrendako hainbat arbola ekarri ditu Bizkaiko Aldundiak. Udaletxean banatzen dihardue egunotan. Horrela, ekimenean parte hartzen dauen herritar bakoitzak bere lurretan landatuko ditu arbolak. Herriko hainbat lursailetan honezkerok landaketa egin dabenak be badagozela nabari da.

Pago, haritz, gereziando
Urtero arrakasta izaten dauen deialdia izaten dela Bizkaiko Aldundiak antolatutakoa esan deuskue Udalean, eta ohitura bilakatu dela. Landatzeko sasoi aproposagaz bategiten daben ekimenean, urtero hartzen ei dau parte hainbat izurtzarrek. Herritarren artean banatzeko, pagoak, haritzak eta gereziandoak izango dira Udaletxean eskuragai, halan gura daben herritarrek batu eta euren etxeko lurretan hazi daiezen. ■ I.E.

Landaketa sasoi aprobatuta eta Zuhaitz Egunagaz bat eginda abiatu dabe aurten be ekimena

Martxoan beste ekitaldi batzuk be egingo ditue. Hilaren 19tik 21era munduko beste herrien borroka gertutik ezagutzeko jardunaldiak egingo ditue Gazte-txean. Hilaren 28an, Durangaldeko Gaztetxe Koordinadorak Erorion AHTaren kontrako egunera joateko deiagaz bat egin dau Gazte Asanbladak, otxandiarrek parte hartu daien animatuaz. ■ M.G.

ELORRIO

Ura moztuko dabe uri osoan

Argiñetatik hiriguneraino doan ur-hoditeria aldatzeko lanen eraginez ez da urrik egongo uri osoan, martxoaren 3ko gauerditik hilaren 4ko goizeko 06:00ak arte. Halan jakin eragin dau Niko Moreno alkateak. Orain hiru hilabete inguru hasi zitueen Argiñetan ur-hodiak aldatzeko lanak. Oraindino beste hilabete inguru luzatuko diren herri-lanon barruan espaloia be jarriko dabe Argiñetatik eta uriguneraino.

DURANGO

Maiatzean zabaldu gura dabe Kalebarriko Udal Liburutegia

Aldi berean 300 lagun batzeko aukera emongo dauen Kalebarriko Udal Liburutegiaren lanek aurrera darraie. Denera, 1.785 metro koadro erabilgarri batuko dituen kultur azpiegitura barria maiatzaren lehenengo hamabostaldirako izango dabe gertu. Altzariak apirilean izango ditueela argitu dabe, baina, lekualdatzea egin behar ei dabe. Denera, hiru milioi euroko inbertsinoa eskatu dabe lanek.



AHTak kaltetutako lurretan mendi martxa antolatu dabe



Durangoko AHT Gelditu! Elkarlanak mendi martxa antolatu dau astebururako Abiadura Handiko Trenak kaltetutako lurretan. Zapatuan izango da, otsailaren 28an, eta Andra Mariko elizpean zehaztu dabe elkartzeko hitzordua, 10:00etan. Durangoko AHTaren lanak hasi direla salatzen joan zen asteburuan be manifestazinoa deitu eben, hainbat lagun batuz.



Patxi López
Lehendakari gaia



Patxi Lehendakari

Zeuk erabaki

PSE-EE
PSOE



www.socialistasvascos.com



HAUTESKUNDEAK

Aste bitan boto eske ibili ondoren, denak emaitzen zain

Zornotzako Zelaieta zentroan elkartu ziren sozialistak



Kanpaina hasieran izan zen PSE-EE alderdiak Durangaldean egin dauen ekitaldia, ezkerreko irudian jasota dagoena: Andoni Unzalu eta Eduardo Madina izan ziren Zornotzako Zelaietan.

Bariku gaueko hauteskunde kanpainaren itxiera ekitaldirako, Gasteiz hautatu dau PSE-EEK. Patxi Lopez lehendakari sozialista eta Arabako zerrendaburu Txarli Prieto izango dira bertan. Eguerdian, barriz, Arrasateko Udaletxeko plazan egin dau *Zeukerabaki* lema izan dauen hauteskunde kanpainako azkenaurreko agerraldia Lopezek.

Burujabetzarako oinarriak jartzeko ordua da EAren ustez



Eak Zornotzako Alkartetxea inauguratu dau otsailean. Unai Ziarreta lehendakari gaia etorri zen ekitaldira. Aitatu ebanez, "hauteskunde honek subiranotasunaren aldeko mugimendua indartzeko lehenengo aukera dira".

2001eko hauteskundeetatik hona bozkatzera joan ez den jente asko dagoela esan eban, eta ilusino hori berreskuratu daien lan egin behar dela: "Jentea aspertuta dago alderdi politikoen anbiguotasunagaz eta EAren hilketekin. Horreek abstentzinoaren bototik atera gura doguz gure proposamenagaz".

Aldaketa Aralarren "ezker abertzale barritik" etorriko da



Aintzane Ezenarro, Dani Maeztu eta Mikel Basabe zerrendaburuak eta Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzaile nagusia Durangoko Elkarte-gian izan ziren joan zen zapatuan.

Benetako aldaketa Aralarren "ezker abertzale berritik" helduko dela esan eban. Kriaren gainean, "zuhurtasun politikotik eta korrupzinoari aurre eginez" erantzun behar jakola esan eban Zabaletak. Ezenarrok gaineratu eban: "Frogatu dogu serioak garela, lan egiten dogula ia lagunik ez dogun esparruetan, koherentziak emandako indarrez".

Gereñuk trena lurperatzeko lanen garapena ezagutu dau



EAJk Durangon ekitaldia egin eban eguaztenean. Nuria Lopez de Gereñu Garraio eta Herri Lan sailburuak trena lurperatzeko lanen garapena bertatik bertara ikusi eban.

Bera be trenean iritsi zen, Andoni Ortuzar Bizkaiko Buru Batzarreko presidenteagaz eta Izaskun Bilbao Parlamentuko lehendakariagaz batera. Aitziber Irigoras Durango-ko alkateak, David Latxaga Zornotzako alkateak zein bertaratu ziren alderdiko jarraitzaileek ondoetorria egin eutseen. Ondoren, trena lurperatzeko lanen garapenari buruz berba egin eban.

Soraya Sáenz de Santamaria PPko kidea Santa Anan



Joanzen bariku eguerdian egin eban Partidu Popularrak hauteskunde kanpainako ekitaldia Durangon. Leopoldo Barreda Euskadiko bozeroalea eta Soraya Sáenz de Santamaria kongresuko bozeroalea izan ziren, Antonio Basagoiti lehendakari gaia aldeko botoa eskatzen.

Martxoaren 1ean Partidu Popularraren aldeko botoa emotea eskatzeko, "herritarren benetako ardurek ezkatzen daben hautagai bakarra" Basagoiti dela azpimarratu dau Sáenz de Santamariak, eta ardura horreek askatasun eza eta egoera ekonomikoa direla zehaztu eban.

Nando Consuegrak durangarren babesia bilatu eban



Ezker Batuak-Berdeak alderdiak Durangon ekitaldia egin eban astelehenean. Nando Consuegra Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordea etorri zen. Javier Madrazo etortzea be aurreikusita zegoen, baina agenda arazoengaitik ezin izan eban bertaratu.

Andra Mariko elizpean alderdiaren programaren inguruko triptikoak banatu zitueen herritarren artean, 19:00etatik 20:00etara. Kaleko jentearengandik hur egotea zen asmoa, eta horretara arazoak bertatik bertara ezagutzea. Umeendako puzgarriak be ipini zitueen.

AHTak Euskal Herria batu beharrean zatitu egingo dauela dinoe



Ezker Abertzaleak Durangon AHTaren lanak egiten dabilzen tokia aukeratu eban eguaztenean ekitaldia egiteko. Euskal Herriak "egoera sozio-ekonomikoaren aldaketa ezinbesteko" dauela adierazo eban. Azaldu ebenez, AHTak "ez ditu Euskal Herriak pairatzen dituen trafiko arazo larriak konponduko". "Inposaketaren irudia" dela salatu eta Euskal Herria "batu beharrean banatu egingo dauela" be ohartarazi eban bertarutakoek.

Horregaitik, martxoaren 1ean aldaketaren aldeko bozka emoteko gonbita luzatu eban.

BERBAZ >

“Alde Zaharreko bizilagunon arazoekiko sentsibilitaterik ez dago”

DAZek sei urte bete dituela ospatzeko, Alde Zaharreko auzokideak Andra Marian bildu dira



Iban Gorriti

Jose Mari Arrillaga •

- DAZeko lehendakaria
- Posta bulegoko behargina

Durangoko Alde Zaharra (DAZ) auzo elkarteak sei urte bete dituela atxakia hartuta, Jose Mari Arrillaga elkarteko lehendakariagaz hitzordua jarri dogu. Ibilbide horretan auzoko arazo batzuk konpondu ditueela azaldu deusku, baina oraindino lan handia daukiela egiteko. Diru-laguntza jaso gura leukie ekintzak antolatu ahal izateko.

Zelan sortu zendueen elkartea?
Hainbat beharizani erantzuna emoteko sortu genduen elkartea. Alde batetik, zarataren arazoa geunkan. Bestetik, Alde Zaharra oinezkoentzako egokitu eben, eta bertako bizilagunendako sarbideak arazoak sortuko zituela ikusten genduen.

Alde Zaharrerako sarbidea Udalagaz izan zendueen lehenengo eztabaidagaia izan zen.
Oinezkoendako gunea egokitu behar ebela jakinda, hirigintza arduradunekin batzarra egin genduen 2003an. Udalak proposatzen ebana ondorengoaren: goizez zamalanak eta arratsaldean itxita. Onartezina eritzi geuntsan. Goizean mundu guztiak ez dauka libre erosteta orokorrak egiteko, edade-tuak jasotzeko...Udalagaz geunkan eztabaida falta horren

ondorioz, kalera irten behar izan genduen sinadura bilketa egitera.

Auzokoen babesa jaso zendueen?
Erantzun bikaina izan genduen. 950 sinadura bildu genduzen Alde Zaharreko bizilagunen artean. Behar zenean ordu erdi sartzen iztea lortu genduen, eta neurri horrek funtzionatu egin dau.

Hirigune historikoa oinezkoendako egokitzeak beste zer ondorio izan ditu?
Leber enpresak bere sasoian egindako ikerketaren arabera, Alde Zaharreko bizilagunok 1.099 kotxe daukaguz, eta inguru honetan 86 aparkaleku baino ez dagoz. Horrek esan gura dau gainerakoek beste lekuren baten aparkatu beharoko dabela. Pozik gagoz Alde Zaharra libratzearen.

Zabor bilketagaz be arazoak izan dozue.

Hasieran portaletan jasotzen ziren. Ondoren 'Z' gunek sortu zitueen. Kamioiak Alde Zaharrean ezin ebanez manio-brarik egin, bost puntu zehaztu zitueen. Geroago lurrazpian sartu zitueen, eta horrek be arazo ugari sortu deuskuz.

Lur azpiko zaborrontziei zer erizten deusazue?

Zikinkeria sortzen denez, egoera hori salatzeko bandera beltza jarri behar izan genduen Kanpatorrostetan. Beira ez eben behar den moduan jasotzen. Zaborrontzien kokapena be, beharbada, ez da egokiena. Tartean, zabor organikoa batzeko biltegi batzuk jar-tzea lortu genduen.

Zarata gaitik be kexatu zarie, batez be, asteburuetan.

Udal Agenda 21ekoek zarata mapa egin dabe. Zarata maila handienekoa Santa Ana ingurua da. Neurri zuzentzaileak be proposatu ditue, baina ez daki-gu txosten horregaz zer gertatu den. Zelan ez, ikerketa horretan gauetako zarata be aitatzten da, baita goizetako garbiketa makina be.

“Lur azpiko zaborrontziek arazoak emoten ditue, batez be, beira jasotzen ez badabe”

“Zarata Mapan zehaztutako neurri zuzentzaileak ez ditue betearazo”

“Udalak txakurren gorotzen gaian ez dauela behar beste egiten begibistakoa dela deritzogu”

Jentearen aisialdia eta bizilagunen atsedenaldea bateraezinak dira?

Ordenantza bat dago eta hori da bete behar dena. Geu be irtetzen gara, baina sentsibilitate falta handia dago. Ordu-egia edozein ospakizunengaitik aldatzea, neurri zuzentzaile horreek ez dabe ondo ikusten.

Araza hori konpondu leteke?

Alde Zaharra leku saturatu lez izendatzea eskatu genduen, taberna gehiago ez zabaltzeko, baina, halan be, ez deuskue jaramonik egin.

Udalagaz zer hartu-emon maila daukazue?

Ez daukagu ia hartu-emonik. Maiatzean proposamen zehatzak aurkeztu genduzen, eta ez dogu erantzunik jaso. Ez dago elkarrizketarik. Salaketa publikoak egin behar izan doguz jaramon egin deiskuen.

Karkabak zein egoeratan dagozen be salatu dozue.

Ikustekoa da zelan dagozen. Egoera hau behin eta berriro salatu dogun arren, Udalak oraindino ez deutso konponbiderik emon. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

55 kaleratzeren aurkako protesta ekitaldia Layden

Langileek enpresak hartutako neurrien kontrako mobilizazioak antolatu ditue



Ertzainak agertzean protesta ekitaldia bertan behera itzi eben manifestariak. Kepa Aginako

Layde (Laminación y Derivados) enpresako beharginek kamioiak geldiarazo zituen enpresako sarreran, "zuzendaritzak hartu dituen azken erabakiak salatuz". ELA, LAB eta CCOO sindikatuek osatzen daben enpresa komiteak jakitera emon daue-

Layde Corus taldeko enpresa da, eta 182 beharginek dihardue

nez, enpresak 55 behargin kaleratzeko asmoa agertu dau. Sindikatuetakordezkariek azaldu dabenez, enpresaren jarduera bideragarri egiteko zuzendaritzak kaleratzeak beharrezkoak direla jakitera emon eban, euren borondatez zihozzen beharginei

kalteak ordainduz. Neurri hori ez dela egokia dinoe sindikatuek, baina, halan be, enpresak zerrendarik ez ateratzeko konpromisoa hartu ebalu. "Langile gitxi joan direnez, orain zerrenda bat atera dabe langileak beldurtu eta gehiago joan daitezten euren borondatez", azaldu dabe enpresa komiteko kideek. Egoera salatuzko geldialdiak deitu ditue hurrengo asteetarako.

Laydeko langileek lanuzteak egingo ditue hurrengo bi asteetan

ZM eta Codipauto

Merkataritza arloko Bilboko epaitegiak Mendiguren Zarrua enpresaren borondatezko konkurtoa edo ordainketa-etendura agindu dau. Beraz, enpresaburuek konkurto legera jo dabe ordainketei aurre egin ahal izateko. Datorren astean sindikatuetakordezkariek administrazio konkurto salagaz berba egiteko asmoa daukie.

Sindikatuak salatu dabenez, zuzendaritzak 372 langiledun enpresa ez dau behar den moduan kudeatu. Arazoak sortu direnean bazkideek ez dabela "euro bakar bat be jarri" kritikatu dabe, nahiz eta orain urte bi 3 milioi euroko dibidendoak banatu.

Berrizko Eitua poligonoan dagoen Codipauto enpresako sindikatuak 16 langile kaleratzeko saiakera salatu dabe; 42 langile dira guztira. Urriaz geroztik enplegu-erregulazio espedita mar txan jarri dabe lanaldia erdira jaitziz. Egoera hori salatuzko, otsailaren 25az geroztik, beharginek enpresa aurrean elkarretaratzeak egin dihardue, egunero, 13:30etik 14:00etara. ■ J.G.

Manifestazioa egin dau CCOOK

"Lanpostuen eta beharginen eskubi-deen defentsa" aldarrikatu eban eguztenean CCOO sindikatuak, Iurretatik Durangora egindako manifestazioan. Sindikatu horretako metal federazioak azaldu dauenez, "enpresaburuek, krisiaren atxakian, merkatuaren erregularizazioa desegiteko estrategia jarraitzen dabe, langileak masiboki kaleratzeko helburuagaz". Protesta ekitaldiaren aurretik batzarra egin eben.



I.Gorriti

kolaborazioa



Jose Petite
CC.OO. sindikatua

Gizartegintza sektorean lehenengo greba

Urtarrilaren 14a data historiko bihurtu da; ordura arte, inoiz ez zen lan kontuengatik greba deialdirik egin gizartegintza bezalako sektore batean. Sortu berri den sektorea da, programak, proiektuak, zerbitzuak eta hornikuntza publikoak kudeatzen ditu, lan egiten duen proiektuetan buru-belarri sartzen den sektorea da, eta, askotan, lotura afektibo-emozionalarekin lan egiten da horrelako erakudeetan. Bokaziozko sektorea da, hasiera batean elkartegintzarekin eta kultur eta gizarte boluntarioekin estuki lotuta egon zena.

Gizartegintza sektoreko langileek jasaten duten lan eta soldata baldintzen aurrean eman duten erantzuna ez da inoiz hain sendoa izan. CCOOren ustez, langileentzako garaipena izan da bi egunetarako deitutako greba sektorearen %60k baino gehiagok babestea. Urtarrilaren 14an eta 28an egindako manifestazioetan, 800 pertsona baino gehiago bildu ziren Bilbon. Gainera, kontuan eduki behar da Bizkaian 2.500 langile badaude ere beste 200 zentro inguru gehiago daudela sakabanatuta erakunde, administrazio eta enpresen menpe, eta horietako askotan ez dagoela ordezkaritza sindikalik.

Mobilizazioaren arrakasta dela-eta Gizartatz patronala hausnartzen hasi beharko litzateke negoziazioa berreskuratzeko asmoz, eta, horrela, bi aldeentzako onuragarriak izango diren emaitzak eskuratzeko. CCOO ikasturte hau patronala eta orokorrean beste enpresa eta erakundeak aztertuzko erabili badu ere, orain arte, patronala ez da 2008ko uztaila eta iraila bitarteko epe horretan egin zituen proposamenen bidetik atera.

Bada garaia Gizartatz administrazio lokalei, udalei eta diputazioei dei egin diezaien arazoari amaiera emateko, azken batean hauek dira gure kontratuen eta ematen ditugun zerbitzuen mugak ezartzen dituztenak, eta, ondorioz, dauzkagun lan baldintza drakoniarren arduradunak.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

EXCAVACIONES JON

NOTA GUZTITZARAKO INDIKATZAK
HONDAKINIBELIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PAGURUA, 10 • GUREA • 48911 MALLAIA
TEL. 943 17 20 24 • FAX. 943 17 20 24

KULTURA>



Kepa Aginako

ANTZERKIA > EMANALDIA

Ahuntza edo nor den Sylvia?

Domekan Durangoko San Agustinen –AEK-k antolatutako Korrika Kulturalaren egitarauaren harira antolatuta– eta bari-kuan Elorrioko Arriolan izan zen Txaloren *Ahuntza edo nor den Sylvia?* lan berria.

Aurrez, *Artea* eta *Gronholm Metodoa* antzerki obrekin egin bezala, jatorrizko gidoia euskara-ra ekarrita oholtzaratu du Txalo Produzioak taldeak *Ahuntza edo nor den Sylvia?* antzezlana.

Donostiako antzoki zaharrean estreinatuta eta gero, joan zen aste-buruan Durangaldeko antzoki bitan izan ziren Txalo taldekoak euren azken apustua gure ohol-tzetara ekartzen.

Antzerkian eskarmentu handikoak diren lau aktore izan ziren Durango eta Elorrioko antzokietan: Ramon Agirre, Asier Hormaza, Ane Gabarain eta Asier Orue-sagasti antzezleak batu ziren joan zen asteburuan.

Giza harremanei, maitasunari eta sexu harremanei buruzko lana da Txalok otsailean estreina-tu duena, Edward Albee antzerki-gile estatubatuarrek 2002an idat-zitako obran oinarritutakoa, eta Julia Marinek itzuli eta Karlos Zabalak zuzendu duena.

Absurduarekin jolasten duen eta tragedia ikutua ere baduen lana da asteburuan eskualdean izan zena; giza harremanen azter-keta zorrotza egiten duena. ■ I.E.

Arriolan eta San Agustinen antzeztu dabe asteburuan lana

12 > Astelehenetako poesia tailerra

Urritik hona hamabostean behin elkartzen dira poesia tailerrean izena eman duten lagunak Durangoko Liburutegian, astelehenetan.



13 > Puro Chile taldearen diskoa

Gaur aurkeztuko du Elorrioko Ateneoan Puro Chile taldeak disko berria. Lorentzo Recordsen grabatu duten lanaz aritu zaigu Urko taldekidea.

LITERATURA > POESIA

'Poesia ulertuz', hamabostean behin mahaiaren inguruan

Hutsik egin barik Durangoko Liburutegian batu dira astelehen honetan ere



K. Aginako

Urritik, Durangoko Liburutegian elkartzeko dira hamabostean behin poesia tailerren izena eman duten dozena bat parte-hartzaile. 19:00etatik aurrera, Juan Ramon Makuso idazleak gidatuta, poesia irakurtaldia burutzen dituzte Liburutegiko mahaiaren bueltan.

Bisita egin diegun aste honetan, ohi baino jende gutxiago batu da inauteriak eta zenbaiten opor egunak tarteko, baina talde finko eta iraunkorra osatzea lortu dutela nabarmendu digute.

Udaberriari hasi ziren

Iazko udaberriari lehenengoz batu zireneko gehienek jarraitzen dute hamabosteroko zitara hutsik egin barik etortzen, eta parte-hartzaile berriak ere badaude urritik hona. Otsaileko bigarren saio honetan, Cernuda poetaren lanaren irakurtaldian ziren taldeko gidaria eta parte-hartzaileak. Taileraren gidaria ezik, Liburutegiko gelan topatu ditugun guztiak emakumeak

dira, eta horrela izaten omen da gisa honetako tailer eta ikastaro gehienetan: emakumeak izaten dira parte hartzerantz animatzen diren gehienak. Poemak irakurriz eta ondoren gainerako parte-hartzaileekin gogoetak partekatuz poesiara gerturatatzeko proposamenarekiko interes gehien emakumeek erakutsi ohi dute.

Cernuda poetaren obra irakurtzen aritu dira asteen

Emakumeak izaten dira halako poesia tailerretan gehienak

27ko belaunaldia

Cernuda zerabilten astelehen honetan bertaratu gaitzaizkienean ahotan, izan ere, 27ko belaunaldiaren poesia irakurri eta komentatzen dabilta azkenaldian: Pedro Salinas ere ezagutu dute. Euskal Herrian sortutako poesiari dagokionez, Otero eta Celaya poeten lanetara gerturatatzeko aukera izango dute hurrengo.

Datozen saioetan, atzerriko poesiara ere leiho bat zabalduko dute Durangoko Liburutegian, Juan Ramon Makusok esan digunez, eta Wislawa Symborska poeta poloniarren lana izango dute tailerren esku artean.

Guztiekin ere, hasieran esperimentu bezala sortu zena eta dagoeneko finkaturik dagoena da poesia tailerra: neguko astelehen iluntzetako froga igaro dute, eta poesiarekiko gustua eta afizioa garatu; gerturatzen saiatzearen poderioz, bakoitzak bere modura, baina, poesia ulertzeko. ■I.E.

GEURE DURANGALDEA



Markasan Chamapa

J.M. Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea

"Paper zuriaurrean jartzen ari naizen une honetan, nire irudimenak iturri agortu bat ematen du eta bertatik uraren ohiartzuna bakarrik entzuten dut". Horrela dio orain hamabost urte idatzi nuen muntaia bateko pertsonai batek. Muntaiako pertsonaiak, irudimena bere mahai azpian zuen, eta abagune hori aprobetxatuz behar zituen ideiak eskatzen zizkion papera letraz betetzeko. Nik ez dut horrelako aukerarik eta hor nabil mahai azpian begira, baina ez dut horrelako pertsonairik aurkitzen.

Egoera honetan, errealtatea den leihora hurbiltzen naiz ea bertan aurkitzen dudan zerbait, eta Atxagari baimena eskatuz, hor bidaltzen ditut nire begiak, kanikak bailiran; handik eta hemendik ibili dira dibertitzen, baina ez didate berririk ekarri.

Berrito ere bueltatu naiz orain dela hamabost urte idatzi nuen hartara, eta bertan agertzen den beste pertsonaia bati laguntza eskatu diot; Oro, Oromenari hain zuzen ere. Berak galdetzeko esan dit, prest dagoela galdererantzuteko edo pasarteak gogoratzeke, eta niri une horretan zera etorri zait burura: Markasan Chamapa!! Berak "herriak erabakiak hartzeko duen ahalmena" dela bere esanahia erantzun dit.

Orok gogora ekarri dit hitz hauek entzun nituen lehen aldia, La Pazen, Boliviako hiribuan. Hizkuntza aymara da, eta 4.000 urteko kultura baten lekukoa.

Badugu guk mendebaldeko kulturatan horrelako hitzik? Herriari horrelako aukerarik ematen dionik?

Bat etortzen zait burura, eta lotsa ematen dit ozeki esateak, eta, egia esaten badizuet, are gehiago idazteak. Berrito ere errealtatea den leiho horretatik begiratzen dut, eta gehiago pentsatu gabe saltoak eta brinkoak emanez eskailek jaitsi ditut eta aurkitzen dudana lehen horma garbian zera idatzi dut spray gorri batekin: Markasan Chamapa!!

ANTZERKIA > IKASTAROA

Jolasa oinarri duen interpretazio ikastaroa

Abadiñoako Banarte antzerki taldeak antolatutako ikastaroa da, eta antzezle bakoitzaren interpretaziorako gaitasunetan sakontzea du helburu. Jolasaren bitartez, interpretaziorako sarrera egingo du Eneritz Artetxek eskainiko duen saioak. Ondoren, konfiantza hartzeko eta interpretaziorako teknika ugari ikasteko aukera izango dute Banarte taldeak antolatzen duen ikastaroko parte-hartzaileek.

Zortzi orduko saioa da apirilaren 4rako Banarte antzerki taldeak prestatu duena, eta banarte@gmail.com helbidea zahaztu dute interesa dutenak informatzeko. ■I.E.

Zortzi orduko saioa izango da apirilaren 4an egingo dutena

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 27 22:00etan
SARKOR + EZINEAN
ZURETZAT SU EMOTEN
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

MARTXOAK 6 22:00etan
SEIREN + MANENT
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

MARTXOAK 7 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA
DANTZA TAILERRA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

TE DOY UNA CANCION

lñaki Salvador (Donostia)

Otsailak 28
larunbata 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

Tel.: 94 601 07 76

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Joan zen eguenean, diskoaren aurkezpen berezia egin zeneduen, titere eta guzti.

Bai, ikutu barri hori gura izan deusagu emon, titereek daukien ikuspuntu berezia. Bideo-klipa be, titereekin burutu dogu. Valentziako Tintxi de la Fuentek egin ditu panpinak. Alde batetik, musika taldeen ohiko irudia aldatu gura izan dogu, eta etorkizunerako daukagun ideia be abiatu gura izan dogu: hainbat arte plastikogaz ikuskizuna sortzea da daukagun asmoa.

Titereak eta musika zuzeneko emanaldietan uztartzea da daukazuen helburua, beraz?

Bai, asmoa horixe da, baina horretarako azpiegitura handia behar da, eta denpora behar dogu. Baina konbentzitura gagoz hori be ailegatuko dela, eta horregaitik ekin deusagu.

“Ahalik eta kontzertu gehien eskaini gura dogu, lana erakusteko”

Disko berriaren aurkezpen birak hainbat lekutara eroango zaitue.

Errenteriako Los Del Gas taldeagaz egingo doguz lau bat kontzertu Gipuzkoan eta Espainian. Geure kabuz lotutako hainbat kontzertu be badaukagu, gure kontaktuei esker.

Kontzertuetan zentratuko zarie aurrerantzean, beraz.

Bai, ahalik eta kontzertu gehien gura dogu eskaini, gure musika ezagutarazteko modua dela pentsetan dogulako. Jo eta bere musika zabaltzea da talde batek

“Ez dogu ezelako mugarik onartzen, geure buruarenak besterik ez”

Rock koloretsu eta bizizalea egiteko bidean: Puro Chile taldea

Diskoa plazaratu dau Puro Chile taldeak, eta Ateneoan aurkeztuko dabe gaur zuzenean. Ateneoan bertan izan gara Urko taldekideagaz berbetan



K. Garcia-Insonoro

egin leiken bidea. Arazoa, gaur egun, musika asko dagoela da, eta kanta onak izatea funtsezkoa da musika zabaltzeko.

Diskoaren grabazioan autogestinoaren aldeko aukera egin dozue.

Gaur egun, baldintza penagarrietan izan arren disketxe batekin kontratua sinatuta pozik geratzen da talde asko. Guk ez dogu hori gura izan, gure taldearen zutabe garrantzitsuenetari-

koa “gu geu izatea gure titireroak” da: hori da bidali gura dogun mezua be. Urtetxoak daukaguz inork zer egin geinken eta zer ez esan deiskun izteko. Ez dogu ezelako limitaziorik onartzen. Gure diskoa Lorentzo Records disketxeak plazaratu dau, baina gure gestinoaren bitartez. Musikari beharrezko denpora eskaini behar jago, eta gero balio bat daukala erakutsi behar da. Lanaren bitartez, gauzak lortu egin behar dira.

Dedikazino handia eskatuko dau horrek guztiak, baina.

Bai, baina lan egitea da gako: musikaren langileak gara. Egunero lau-bost orduz jarduten dogu jotzen. Fabrika batean lez, honetatik jan gura badozu, egunero egin behar dozu lan. Ahalik eta gehien jotzea da kontua.

Diskoa grabatzeko denpora nahikoa izan dozue?

Bai, eta gure egiteko eraren isla da hori, intuizioaren aldeko apustuagaz zerikusia daukana: ez dogu ezertarako presinorik gura. Horrek emon deusku, besteak beste, gure musika aztertzeke denpora nahikoa. Presak hil egiten dauela uste dogu. Inori ez deusagu azalpenik emon behar izan, eta geure buruagaz oso zorrotzak garenez, emai-

tzagaz oso gustura gagoz. Zer izan garen, nor garen eta norantz goazen islatzea lortu dogula disko honetan uste dogu.

Zelakoa da diskoa?

Hainbat garaitan sortutako kanteekin, batasuna sortzen saiatu gara. Emaitzagaz oso pozik gagoz, jenteari asko gustatu jakolako. Batez be, gure belau-naldiko hainbat jente musikara “berkonektatzea” lortu dogu, eta oso polita da hori.

“Zer izan garen, nor garen eta norantz goazen islatzen dau disko honek”

Hitzetan nabari da gauzak esateko beste modu bat...

Bai, uste dogu gauza bat dela abesti batean zeozer aldarrikatzea, eta beste bat azalpen bat emotea. Gaurko gazteek gatxago daukie ikuspuntu kritikoa garatzea, gure ustez: kexa guztiak emonda daukiez, erabaki behar dabena dazeinetara batu. Lehen, “mekaguen el Vaticano” esatea itzela zen, eta esan egiten genduen. Orain esaldi hutsa litzakela pentsatzen dogu.

Kexa horreek bideratzeko beste modu bat aurkitu dozue, beraz, disko honetan.

Beste perspektiba bat lortu dogu: mundua polita denik ez dogu esan gura, ez dinogu dena polita denik. Baina bizitzari kantez deusagu, izatez polita dela uste dogulako, eta gure bizitzeko ahalmena ezin dauela zapuztu kanpoko ezerksinesten dogulako. Horri abesten deusagu asko. Bizirik bazagoz eduki zeinke ikuspuntu kritikoa, baina kanpoko eragileek –kredituek, lanak...– jaten bagaitue estutu egiten da bidea.

Hitzetan bakarrik ez, ikutu positibo hori musikari jagokonez be igartzen da.

Rock koloretsua egiten saiatu gara, ez rock iluna. Lagun batek, diskoko kantak entzuterakoan, esan euskun punk beltzetik koloretako rocka egin dogula. Lagun batek esanda, kritikarik onena izan da hori. Rockari kolorea emotea ez da bape erraza. Rock oinarriagaz, bestelako ikutu eta pintzeladak emon deuseguz kantei. Musikari jagokonez, muga bakarra geu izatea bilatu dogu. Mugak ez doguz onartzen: ez fisikoak ez bestelakoak. Horretan punk mentalitatea izaten jarraitzen dogula esan leiteke. ■ I.E.



K. Garcia-Insonoro

MUSIKA > KONTZERTUA

Sarkor eta Ezinean taldeak Plateruenean

Durangon egingo dute gaur gauean Sarkor eta Ezinean taldeek 'Trotamusik' birako geldialdia

'Trotamusik' biraren barneko geldialdia dute Durangoko Plateruenean Gernikako Sarkor eta Azpeitian sortutako Ezinean taldeek gaur. Indarrak batu eta proiektu berri honen ibilbidea batera egiten dihardute talde biek. Euskal Herriko hainbat areto eta gaztetxetan jo dute hilabeteotan.

Abenduaren 20an ekin zioten talde biek elkarrekin bira honi, eta hil honen bukerako Durangoko emanaldia izango dute birako azkenetariko zuzenekoak.

Su *emoten* diskoko kantak aurkezteko aprobeztatu dute kontzertu bira hau Sarkorrekoek, eta

Gaztetxe eta areto ugarian aurkeztu dituzte euren lanak abendutik hona

Bigarren diskoa aurkeztuko dute talde biek

horrela egingo dute Platerueneko otsailaren 27ko emanaldian ere.

Punk eta rock doinuak lantzen dituzten taldeak dira Sarkor eta Ezinean, eta Euskal Herriko hamabi herritara eraman dituen biraren azkenetariko geldialdia egingo dute Durangon.

Bigarren lanak aurkezten

Gaur antzokian kontzertua duten talde biek 2008an kaleratu zituzten bigarren diskoak aurkezten ibili dira bira honetan. Euren kanten abiadura, indarra eta freskotasuna zabaltzen dabilta abendutik otsailera bitarteko biran.

Durangoko honen aurretik, beste antzoki batzuetako oholzetan izan dira Sarkor eta Ezinean; Donostiako Doka antzokian, Ondarruko Kafe Antzokian jo dute, eta hainbat herritako gaztetxeak ere bisitatu dituzte 'Trotamusik' deitu duten partekaturiko bira honetan, orain Durangora dakartzan biran honetan. ■I.E.

ARTEA > DEIALDIA

Sorkuntza beka irabazi zuen asmoa gauzatu

Durangoko Udalak arte sorkuntza bultzatzeko helburuarekin azken urteetan eskaini duen diru-laguntzen harira iazko edizioan onuradun hautatutako aurre-proiektua gauzatzeko, herritarren kolaboraziorako deialdia zabaldu dute proiektuaren bultzatzaile Ismael eta Carlos Iglesiasek.

Urte honetan zehar garatzeko aurkeztutako arte sorkuntzaren inguruko proiektuen artean Durangoko Udalak hautatu zituenetariko *Durango: historia de un río* izenekoak gauzatzeko, azken mendean Durangon hartutako irudiak batu gura dituzte Durangoko gazte biek.

Durangerrek euren etxeetan dituzten argazkiak —dozein formatutakoak izan daitezke—, ilustrazioak, marrazkiak eta grabatuak ere bildu nahi dituzte, batutako material horrekin erakusketak eta dokumental bat osatzeko. Informazio gehiago jaso ahal izateko carlos@katuoinak.tv helbidea duzue aukeran, eta materiala San Agustinen utzi daiteke 09:30etik 15:00etara. Proiektuaren bultzatzaileek euren hitza eman dute jasotako material guztia jabeek erabakitzeko. ■I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

'The mosquito problem and other stories' filma

Ironia ukitu nabaria duen filma ikusgai Elorrioren, martxoaren 5ean, 'Hilean Behin' zikloan



Urtarrilean martxan ipini zuten zine dokumentalaren urte osorako zikloaren hirugarren hitzordua izango da martxoaren 5ean, 19:30etan, Elorrioko Iturri kultur etxean. Urte honetan zehar hilerro izango den bezala, Europeaneko zine dokumentalaren erakusle izango da martxoko hitzordua ere, modu horretako zinema herritarrei gerturatzea baitu helburu nagusi Elorrioko Udalak bideratutako zikloak; ikusle helduari zuzenduta dago eta doako sarrera du.

Urteko hirugarren hilabeterako hautatu duten filma, Bulgarian ekoiztutako *The mosquito problem & other stories*, 80 minutuko lana izango da. Andrey Paounov-ek zuzendurikoa.

Gai sozialak lantzen dituztenak dira zikloa osatzen duten filmeetariko gehienak: Txileko estatu kolpeari buruzkoa izan zen otsailekoa, eta ironia puntu nabaria duen filma da martxoan aukeratu duguna. Zentral nuklear bat zabaltzen duten herri bateko biztanleek hartzen duten jarrera bitxia erakusten du. Absurdutik asko duen egoera horretatik abiatuta, gizartearen ikuspuntu kritikotik erakusten du filmak. ■I.E.

Bulgarian ekoiztutako filma da martxoan eskainiko dutena

MUSIKA > KONTZERTUA

'Berriz Old School Band Fest'

Taldeetako musikariak eta zapatuan Berrizko Hiltegiaren gaztetxera batu ziren entzuleak ere mozorrotuta agertu ziren dagoeneko deseginda dauden herriko sei talderen musika jaialdi berezira.

Argazkian ageri den Manhattan taldea izan zen jotzen lehena

Aldameneko argazkian, dagoeneko eszenatokietatik aparte dauden taldeen Berriz Old School Band Fest emanaldia zabaldu zuen Manhattan taldea dugu. Zapatuan Hiltegiaren jo zutenetik azkena izan zen sortzen, eta lehena jotzen. Indartsu ekin zion, irudian ikusten denez, rock eta grunge doinuak uztartzen dituen Manhattan taldeak, eta ondoren etorri ziren Hiltegiaren 10.



Kepa Aginako

urteurrena eta inauteriak aitzakia hartuta antolatutako emanaldian parte hartu zuten beste bost taldeak. Berrietik zaharrena, LDF, Nabari, At!, Fast Ladrillo eta Hyssopus taldeen emanaldiak izan ziren.

Berrizko sei talde aritu ziren Hiltegiaren antolatutako jaialdian

Orain beste talde batzuetan dabilzan musikariak dira joan zen zapatuko Berrizko gaztetxeko kontzertuan aritu zirenetako asko, baina orain bost-sei urte sortu eta jo zituzten kantak berriro zuzenean jotzeko auke-

ra izan zuten gaztetxeko jaialdian. Parean, euren doinuak dantzatzeko izan ziren denetarikoko pertsonaiak; mozorrotzeko gaia "musika taldeak eta musikariak" izan ziren Hiltegiaren zapatu gauean. ■I.E.

GEHIGARRIA[>]

anboto | 2009ko otsailaren 27a, barikua

MARTXOAK 8



**emakumearen
nazioarteko
eguna**

**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merrialdearen
Amankomunazgoa

Tel.: 94 620 04 92



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKITALDI SORTA

IKUSKIZUNAK, FOROAK ETA AFARIAK



Kultur ekitaldiz josita dator datorren astea Durangaldean. Izan be, hainbat herritan antolatu ditue martxoaren 8ari begirako ekintzak, eta, aukera zabala izango da, dudarik barik. Iurretan literatura eta musika ikuskizuna dagoela aipatu leiteke; gainerako herrietan be ez dira faltako bideoforumak, hitzaldiak edo afariak.

Literatura eta musika emanaldia eskainiko dabe martxoaren 6an Iurretan, Ibarretxe kultur etxean. Iluntzeko 19:30ean hasiko da ikuskizuna eta hainbat idazle eta musikaririk parte hartuko dau.

Hilaren 2rako bideoforuma antolatu dabe Iurretan, eta 7an afaria

Hiru idazle ezagunek edukiko dabe testuak edo olerkiak irakurtzeko ardura: Miren Agur Meabek, Leire Bilbaok eta Yolanda Arrietak, hain zuzen be.

Ez da erreztaldia bakarrik izango, ordea; eurekin batera,

Esther Gabiola eta Uritze Laka izango dira, berbei musikagaz lagunduz. *Esanen aduanan* deitzen da ikuskizun berezi hori.

Bestalde, hilaren 2rako bideoforuma antolatu dabe Iurretan. Leku berean izango da, baina kasu honetan 18:30ean. Martxoaren 7an be ez da faltako ekintzarik: kontzentrazioa eta afaria izango dira egun horretarako eskaintza.

Aste osoan zehar

Zaldibarren be afaria egingo dabe hilaren 7an, eta, gainera, erromeria be izango dabe Ohiergi taldearen eskutik.

Dena dela, aste osoan zehar antolatuko dira martxoaren 8ari begirako ekitaldiak. Astelehene-

an, esaterako, kafe-hizketaldia burutuko dabe Herri Ikastetxeko aretoan, *Berdintasunaren aitzindarien historia* izenburupean. Helmugak elkarteak antolatutako ekimen hori arratsaldeko 17:30ean hasiko da.

Martxoaren 6an be, aipatzen da antzerkia izango dela ikastetxean, Aztiak taldearen *Quiero llegar a fin de mes* izenekoa. Sarrera dohainik izango da.

Izurtzan be ospatuko dabe martxoaren 8a. Bazkaria izango dabe herriko emakumeek, eta, ondoren, egunerako prestaturiko bideoa ikusiko dabe. Film horretan herriko hamabi emakumek parte hartu dabe.

Abadiñon, azkenik, otsailaren 25ean hasi ziren ekitaldiak egiten, zine-forumagaz.

Zaldibarren be afaria izango dabe hilaren 7an, eta ondoren erromeria

Emakume plazerra gaztamen ederral

Martxoak 8
Emakumeen nazioarteko eguna

BARIKUA, Otsailak 27
17:30ean Kartel lehiaketaren sari banaketa, ERROTA kultur etxean.

ZAPATUA, Otsailak 28
22:00etan Antzerkia: 'Menú del día', Dar-Dar produkzioak, ERROTA kultur etxean.

EGUENA, Martxoak 5
18:30ean, Zine-Foruma: 'Melissa P.' Luca Guadagnino zuzendariarena. Hizlaria: Eskarne Larrinaga, ERROTA kultur etxean.

BARIKUA, Martxoak 6
18:30ean, Anboto Azpiko Damak-ek antolatutako IKUSKIZUNA, ERROTA kultur etxean.
20:00etan, Berdintasunaren aldeko BERTSO SAIOA (M. Amuriza, H. Iruretagoiena, M. Arzallus, E. Uruburu), TXANPORTA kultur etxean.

DOMEKA, Martxoak 8
19:00etan, Antzerkia: 'Zai beti Zai', Oihulari Clown-en eskutik, TXANPORTA kultur etxean.

EGUENA, Martxoak 12
18:00etan, HITZALDI-TERTULIA: '¿Dónde está el placer en mi agenda?' Clara Perez Wolfram, ERROTA kultur etxean.

BIKTIMENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Martxoaren 8an indarkeria matxista be hizpide izango da, halaberrez. Indarkeria horren biktimantzako zerbitzua martxan dago Amankomunazgoan.

Albistegi eta egunkarietako lehen albiste dogu azkenaldian indarkeria matxista. Asko dira bere bikotearen biolentzia pairatzen daben emakumeak; horreetako zenbaitek ez dau salatzen, ezta babesa eskatzen be. Halan be, badagoz egoera horretan laguntza emoten daben zerbitzuak.

Zerbitzu horretan garatzen den lana instituzinoen artean adostutakoa da

Durangaldean, Amankomunazgoak tratu txarren kasuetarako arreta edo babesa eskaintzeko zerbitzua eskaintzen dau. Gizarte zerbitzuen alorrean kokatuta dago, eta bertan hainbat gizarte laguntzaile dagoz lanean. Babesa eskatzeko modu eraginkorrena telefono honetara deitzea da: 94 620 04 92.

Zerbitzu horretan garatzen den lana hainbat instituzinoren artean adostutakoa da. Agertzen den biktimaren kasuaren arabera, instituzino horreek elkarlana abiatzen dabe. Bi prozedura mota aktibatuko leitekez biktima batek zerbitzu horretan: bata lesinorik egon dela edo dagoela suposatzen bada, eta bestea lesinorik ez badago.

Lehenengo kasuan, emakumeari laguntza medikoa emoten jako, errekonozimendua egiteko. Gainera, pausu horrek eragin handia eduki leike geroko salaketan. Gorputzeko lesioa berriki eginikoa bada, SOS Deiak-era deitzen dabe, anbulantzia edo Ertzaintzaren presentzia beharrezkoa bada. Medikuri behar ezean lehen pausua biktimagaz elkarrizketa bat egitea izaten da.

Laguntza psikologikoa nahiz juridikoa gomendatzen jakoz emakumeari, eta bere seme-alabak be kontuan hartzen dira prozesu horreek abiatzerakoan. Horretaz gainera, emakumeak etxea itzi gura badau harreraretxera joatea eskaintzen deutesie, eta hortik aurrera Foru Aldundia-ren esku geratuko litzake kasua.

Egoera horretan dagozenei zuzenduta inguruan egon leitekezen elkarten kontaktuak be emoten jakoz emakumeari, gaitzeko lana errazteko aukera modura. Bestalde, denpora pasatu arren, gizarte zerbitzuek kasuari jarraipena egiten deutesie.

Laguntza juridikoa nahiz psikologikoa eskaintzen jakoz emakumeari

MARTXOAK 8



EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 5etik 29ra

ERAKUSKETA

"Raketalariak"

Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Martxoak 7

• **ANDRAGUNEAREN INAGURAZIO OFIZIALA**
Andragunea Emakumeen topagunea.

• Durangoko emakumeei omenaldia
12:30 - Pinondo Etxea (Santa Ana plaza)
Herritar guztiei zuzenduta.

• **KONTZERTUA:**
"Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna"
Bartolome Ertzillako ikasleak.
19:00 - Musika eskolaren areto nagusian.

• **ANTZERKIA:**

"¿Se puede?" Mamacrea (Bilbo)

20:00 - San Agustin Kultur Gunea

Martxoak 8

• **LILAKROSA**

Berdintasunaren aldeko herri-lasterketa

12:00 - Ezkurdi Plaza

• **BAZKARIA**

15:00 - Txantonesa jatetxean

Txartelak bertan salgai (leku-kopuru mugatua)

Antolatzaileak: Durangoko Plataforma Feminista

• **MANIFESTAZIOA**

18:00 - Andra Maritik aterako da.

Antolatzailea: Durangoko plataforma feminista.



ANDEREA



CLARA PEREZ WOLFRAM: "ESPAZIO PROPIO BAKO EMAKUMEAK EZ DAUKA ASKATASUNIK"



- **Izen-abizenak:**
Clara Perez Wolfram
- **Adina:** 40 urte
- **Ikasketak:**
Kazetaritza lizentziatua
Berdintasunean masterra
- **Lanbidea:**
Oiarzungo berdintasun teknikaria.

Non dago plazerra nire agendan? Emakume askok bere buruari egin deutsan galdera hori abiapuntutzat hartuko dau Clara Perez Wolfram Oiarzungo berdintasun teknikariak Abadiñon emongo dauen hitzaldi-tertulian. Martxoaren 12an, arratsaldeko 18:00etan, Errota kultur etxera gerturatzen direnek emakumeen espazio propioaren garrantziaz hausnartuko dabe.

Tertulia honetan plazerraren gaiari zer ikuspuntutik helduko deutsazue?

Emakumeoi zergaitik kostatzen jaku hainbeste gure plazerrezko egoera eta jardueri lehentasuna emotea? Horixe da aztertuko doguna. Emakumeok ez deutsagu jarduera horreei denporarik gordetzen. Sarritan emakumeok badakigu zer gustatzen jakun, baina ez deutsagu daukan garrantzirik emoten gustatzen jakun horri.

Gai zabala da hori.

Orokorrean, plazerra zelan bizi dogun eztabaidatuko dogu. Plazer sexuala emakumeon artean ez dogu aitutzen. Horren zergaitian be sakonduko dogu, eta bakotxarentzat zein den plazerrarekin lotutako jarduera bat eta horri zelan egin leku bat agendan be aztertuko dogu.

“Gure nahiak betetzeko behar dogun lehenengo gauza espazio propioa da”

Emakume askoren artean sexuari buruz berba egitea tabua da oraindino?

XXI. mendean bizi arren, gure heziketa tradizionalan emakumea eta plazerra bateraezinak dira. Emakumea sufrimenduagaz lotuta dago. Ondo ikusita dago emakumea sufritzen ikustea; batez be, besteengatik sufritzen badau. Emakume batek bere plazerrari denpora dedikatzea eta, gainera, zer gustatzen jakon adieraztea, jendartean moralki ez dago ondo ikusita.

“Emakume etorkinak biktima moduan tratatzean gure azpitik jartzen doguz”

Bakotxaren espazio propioa ez izateak besteenganako dependentzia eragin leike?

Virginia Woolf idazlea ingelesak *La habitación propia* liburuan gai horri buruz berba egiten dau. Liburu horretan argi adierazten da emakumeok gure nahia betetzeko behar dogun lehenengo gauza espazio propioa izatea dela. Espazio hori barik ezin dogu ezer egin. Idazleak gure gela moduan azaltzen dauena gure diru moduan be ulertu geinke. Edozein arlotan aplikatu geinke. Espazio propio barik emakumeak ezin leike askatasunik lortu.

Emakume etorkinen inguruan azterketa zabala egin dozu.

Emakume etorkinek hemen topatzen daben lehenengo lana interna moduan beharra egitea da. Denpora eta espazio propioa guztiz desagertzen jake. Lan hori onartezina litzateke hemengo edozein emakumerentzat. Legalki gure gaurko gizartean modu horretan lan egitea onartezina da.

“Emakumea plazerrarekin beharrean sufrimenduarekin lotzen dogu”

Zure liburuko emakumeek berezitasun bat daukie: euren herrialdeetan lizentziatutako emakumeak dira. Zer topatzen dabe hemen?

Azken urteotan etorritako emakume asko elkarrizketatu dot, eta hemengo lan arloko baldintza txarrenak ditue. Interna moduan, etxeak garbitzen, jente nagusia zaintzen, prostituzinoan, sukaldaritzan... Paperen kontua dela eta ez dabe euren kategoriako beharrik topatzen.

Komunikabideek emakume horreei emondako tratamendua be aztertu dozu.

Emakume etorkinen irudia, sarritan, gura barik distortsionatzen da. Gai horregazko jarrera "jatorra" izaten saiatzen gara, eta biktima legez erretreatatu gura izaten doguz. Eta ez dira gizajoak. Beste herrialde batetik mugitu diren pertsonak dira, baina eurak ez dira biktima sentitzen. Biktima legez tratatzerakoan gure azpitik jartzen doguz.

Berdintasunean aurrerapausoak emon diren arren, noiz apurtuko dogu 'kristalezko sabai' hori?

Muga hori zeharkatzeko beharrezkoa da postu horretan gizon bat gitxiago egotea. Hori da berdintasunaren inguruan berba egiten dogunean ikusi gura ez doguna. Egia da emakumeak be boterean egoteko gizon batzuk hortik kendu behar direla. Horixe topatzen dogu benetako arazo: gizonak ez dabela boterea itzi gura.

“Gizonak ez dabe boterea emakumeekin konpartitu gura”

MARTXOAK Berriz

ANTZERKIA "CRUZADAS COTIDIANAS"
Cristina Castillo aktorearen eskutik, lau emakume arunt, lau bizitza aruntekin gurutzatzen dira, sentsibilitate haundiz eta umorez.
-Martxoak 6 gaueko 22:00etan Kultur Etxean-Sarrera: 5 euro

EMAKUMEEN BERTSO SAIOA
Martxoak 8, Kultur Etxean iluntzeko 19:00etan
Bertsolariak Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Amaia Agirre, Iratxe Ibarra, Maddalen Arzallus eta Erika Lagoma
Gai jartzailerak: Maite Berozabal
Martxoak 6 Gynkana ez sexista Institutuan

SEXUALITATEAREN ALDE HISTORIKOA, ERALDATZAILEA ETA PERTSONALA
Saioa Hernandez sexologoaren eskutik (euskaraz)
-Martxoak 7 zapatua, goizeko 10:00etatik 14:00etara
-Martxoak 13 barikua, arrats. 17:00etatik 20:30era
-Martxoak 14 zapatua, goizeko 10:00etatik 14:30era

"MENPEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ZAINTZAN, ARDURA BANAKETA"
Sasolaren eskutik (data zehazteke)
Charra: tailerrean parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa da berdintasuna@berriz.org helbidean edo Udaltzeko 94 682 40 36 telefonora deituta

EMAKUMEEN Nazioarteko Eguna

BERTSO SAIOA EMAKUME AHOTSEZ ETA BERBAZ



Martxoaren 8an, emakumeek beteko dabe Berrizko bertso saioko oholta. Maite Berriozabal berriztarrak gidatuko dauen ekitaldian sei bertsolarik jardungo dabe: batzuk esperientzia handikoak dira, besteak gazteak baina ez atzo goizean jaiotakoak. Tartean, Miren Amuriza berriztarra be izango dogu kantuan.



Gizonak emakumeak baino gehiago izan dira, urteetan zehar, bertsolaritza munduan, jendarean behintzat. Arrazoi bat edo besteagaitik, mikrofonoaren atzean gizonak ikustea izan da ohikoena. Azken boladan, gauzak aldatzen hasi dira; geroago eta emakume gehiago agertzen da Euskal Herriko plazetan.



Geroago eta emakume gehiago agertzen da Euskal Herriko plazetan

Egoera aldatu dela esan leiteke, baina horrek ez dau esan gura oraindino zer hobeturik ez

dagoenik. Halantxik azaltzen dabe bertsoaren bueltan aritzen diren emakumeek; ikusi besterik ez dago txapelketetan botatzen ditueen mezuak. Bizkaiko Txapelketan edo Euskal Herrikoan, txapeliduna emakumea izatea desiratzen dau batek baino gehiagok.

Egiteko asko dago, beraz, eta bide horretan ekitaldi interesgarria izango dogu martxoaren 8an Berrizen: emakumez osatutako bertso saioa. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Miren Amuriza berriztarrak, Iratxe Ibarrrak, Onintza Enbeitak, Amaia Agirrek, Erika Lagomak eta Maddalen Arzallusek jardungo dabe bertsoan, Maite Berriozabal gai-jartzaile berriztarraren

aginduetara. Kultur Etxean izango da zita hori, eta sarrerak bost euro balioko dau.

Kultur Etxe barrian kantari izango doguzen sei bertsolariak ezagunak izango dira bertsozaleentzako. Enbeitak, Ibarra eta Amurizak lan txukuna egin eben igazko Bizkaiko Txapelketan, eta Arzallusek Iparraldeko Txapelketako finalean sartzea lortu eban. Lagoma Nafarroako Txapelketan parte hartzen dabil, eta, Amaia Agirre ezagunagoa da, beharbada, plazaz plaza ibiltzen delako Euskal Herri osoan.

Miren Amurizak eta Maddalen Arzallusek, gazteak izan arren, gaitasun handia daukie; gainerako laurek esperientzia ez eze freskotasuna be mantentzen dabela azalduko dabe.

Maite Berriozabalen aginduetara jardungo dabe sei bertsolariek



EMAKUMEEN BILGUNEA ANDRAGUNEA

Beste hainbat herritan legez, Durangon be izango dabe emakumeek elkartzeko eta informazioa eskuratzeko etxea; martxoaren 7an inauguratuko dabe

Martxoaren 7an inauguratuko dabe, ofizialki, Durangoko Andragunea. Orain arte be, herriko emakume eta taldeek erabili izan dabe, baina hemendik aurrera, egunero ordutegi zabal bategaz eta ofizialki irekita egotea da intentzinoa.

Hain zuzen be, Emakumeen Kontseilua bertan batzen da hilerio, eta gune horrek egingo dau zerbitzu barri horren diseinua. Kontseiluaz aparte, Durangaldeko Ahotsak, Bilgune Feminista edo Habixe moduko hainbat taldek erabili izan dau instalazio hori.

Andragunea zabaltzearen helburua herrian erreferentzia gune bat sortzea da, emakumeek inizatiba hartzeko eta informazioa eskura izateko. Inaugurazioan emakumeei omenaldia egingo jake.

Andragunearen helburua Durangon erreferentzia gune izatea da



Pinondon izango dau egoitza Andraguneak. J.Derteano



MARTXOAK 8

IURRETA

2009

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



MARTXOAK 2 (astlehena)

BIDEFORUMA: "BUDA EXPLOTÓ POR VERGÜENZA" Hana Makhmalbaf

18:30 - Ibarretxe Kultur Etxea

MARTXOAK 6 (barikua)

LITERATURA ETA MUSIKA EMANALDIA

"ESANEN ADUANAN"

Testuak: Miren Agur Meabe, Leire Bilbao, Yolanda Arrieta

Musika: Esther Gabiola, Uritze Laka

19:30 - Ibarretxe Kultur Etxea



MARTXOAK 7 (zapatua)

EMAKUMEENTZAKO AFARIA

"ONDO PASATU ETA EMAKUMEEN ARTEAN GAU ALAIA PASATZEKO GOGOIA BALDIN BADAUKAZU, ZATOK GUREKIN APALTZERA. BERBAK, BARREAK, KANTAK, DANTZAK... DENETARIK EGONGO DA."

Txartelak salgai martxoak 5a arte: Ibarretxe Kultur Etxea (Autobusa jarriko da).

Prezioa:
Erroldatuak-Bazkideak: 15 euro.
Ez erroldatuak: 20 euro.

21:30 - Goiuria Erretegia



KONTZENTRAZIOA

Martxoak 8ari buruzko gogoetak. Ondoren "Emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko argazkia" aterako da.

20:30 - Ibarretxe Kultur Etxea

ONDOREN, AUTOBUSEZ GOIURIARA JOANGO GARA.



AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 28an, 20:00etan TE DOY UNA CANCION

Inaki Salvadorren lan barria aurtengo Donostiako Jazzaldian estreñatu zen. Salvadorrek erreperitorioa aukeratzeko orduan, hainbat arrazoiengaitik artistaren memoria musikala osotzen daberen kantuen artean kuttunenak aukeratu ditu; hala nola, *Mediterráneo*, *Txoria txori*, *Club de Navajas* edo *Rabo de nube* kanta ezagunak. Eszenatoki gainean musikari apartak izango dira, eta antzezle bikote bat be bai, musikariaren bidelagun.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> **'Txio Txioa'**, otsailaren 27an, 17:30ean, Kultur Etxean. Taun Taun antzerki taldea.



ERMUA

>> **'Las gallegas'**, otsailaren 27an, 22:15ean, Lobiano kultur gunean. Lolita Corina konpainia.

>> **'Itsasminex...'**, umeendako antzerkia Rosa Martínezen eskutik, otsailaren 28an, 17:00etan, Lobiano kultur gunean.

ZORNOTZA

>> **'Comida para peces'**, otsailaren 27an, 21:00etan; Ttamtaka antzerki taldea.

Sortzailea: Javier de Dios López; zuzendari-tza: Fernando Bernués.



BESTEAK

BERRIZ

>> **Baqueirara ski irteera**, martxoaren 13tik 15era. Izena emateko epea martxoaren 9a artekoa da. Berrizburun (179 euro).

DURANGO

>> **Txiki Parka**, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoako asteburuetan egongo da zabalik, Udaleko Kultura Sailak antolatuta.



MAÑARIA

>> **Potxin eta Patxin** pailazoak umeendako ikuskizuna eskainiko dabe, otsailaren 28an, Mañariko frontoian. Bertaraten diren guztiendako txokolate beroa be emongo dabe.

DANTZA

DURANGO

>> **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Martxoaren 7an, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DEIAK

DURANGO

>> **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andreak elkarrekin deituta.

>> **Aurre egiozu txikioari**. Durangon AHTaren obrak hasi direla-eta mendia martxa egingo dabe lur kaltetuetan, otsailaren 28an, 10:00etan, Andra Mariko elizpean.

IURRETA

>> **Iurreta Txirindulari Elkarteak deituta ibilbidea**, otsailaren 28an, 9:45. Ibilbidea: Iurreta, Erletxeta, Larrabetzu, Lezama, Erletxeta, Iurreta, Bakixa.



ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> Emakumearen Nazioarteko Eguneko Kartel Lehiaketan aurkeztu ditueen kartelak ikusgai izango dira Errotan, martxoaren 16a arte.

BERRIZ

>> **Ezpatadantzari Eguneko** argazkiak ikusgai izango dira Kultur Etxean, otsailaren 27an, 20:00etan.

ERMUA

>> **'Eskulturak, grabatuak, collageak' (Baroja Collet)**. Otsailaren 28a arte, Lobiano kultur gunean.



IKASTAROAK

ABADIÑO

>> **'Ortugintza ekologikoa'**, martxoaren

ren 4an hasita zortzi asteazkenetan, 17:00etatik 20:00etara, Murueta 6 helbidean, EHNEren bulegoetan. Ortu ekologiko bat zelan jarri martxan irakatsiko da: lurra prestakuntza, hazitegi bat zelan egin, landaketak, gaixotasunak zelan tratatu. Tlf: 94 623 27 30 edo 636 451 572 (Unai)

DURANGALDEA

>> **'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?'**, emakumeenda-



ko antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailean hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo ditue, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak astelehen edo eguenetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

DURANGO

>> **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki haztea', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emoteko, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

IPUINAK

IURRETA

>> **Cristina Verbena**, helduendako ipuin kontalaria **'O lo cuento o reviento'**; otsailaren 27an, 20:00etan, Iurretako Bibliotekan.

>> **Ikima** komiki tailerra, otsailaren 27an, 17:30ean, Kultur Etxean.

ZALDIBAR

>> **Munduko Ipuinak**, umeendako ipuin kontaketa, **Izaskun Mugikaren** eskutik, otsailaren 27an, 18:00etan, Liburutegian.

LITERATURA

IURRETA

>> **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, Iurretako Udal Liburutegian. Aurretik halan eskatuz gero

haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe, gura daberen denendako: (94 681 27 26 edo biblioteca@iurreta.net).

DURANGO

>> **Munduko ahotsak**, helduendako ipuin kontaketa, otsailaren 28an, 20:00etan, Durangoko Udal Liburutegian. **Aldo Méndez** kubatarra izango da ipuin kontalaria. Munduko beste herrialdeetako kultura istorioen bitartez ezagutzeko aukera eskainiko dau.

MARTXOAK 8

Emakumearen Nazioarteko Eguna

ABADIÑO

>> **Kartel lehiaketaren sari banaketa**, otsailaren 27an, 19:00etan, Errota kultur etxean.

>> **'Menú del día'** antzezlan, otsailaren 28an, 22:00etan, Errota kultur etxean. Dar-Dar produkzioak.

>> **'Melissa P'**, zine foruma, martxoaren 5ean, 18:30ean, Errota kultur etxean. Luca Guadagnino zuzendariaren lana. **Hizlaria: Eskarne Larrinaga**.

>> **Anboto Azpiko Damak** elkarteak antolatuta ikuskizuna, martxoaren 6an, 18:30ean, Errota kultur etxean; berdintasunaren aldeko bertso saioa, 20:00etan Txanporta kultur etxean. Bertsolariak: **Miren Amuriza** (Berriz), **Hodei Iurretagoiena** (Zarautz), **Maddalen Arzallus** (Hendaia), **Eñaut Uruburu** (Abadiño). Doakoa da.

>> **'Zai beti Zai'** antzezlan, Oihulari Clownen eskutik, martxoaren 8an, 19:00etan, Txanporta kultur etxean.



>> **'Dónde está el placer en mi agenda?'** hitzaldi tertulia, Clara Perez Wolfram hizlariaren eskutik.

BERRIZ

>> **'Cruzadas Cotidianas'**, antzezlan, martxoaren 6an, 22:00etan, Kultur Etxean. Cristina Castillo aktorearen eskutik, lau bizitza arunt dituzten lau emakume arrunten gaineko istorioa.

>> **'Emakumeen bertso saioa'**, martxoaren 8an, 19:00etan, Kultur Etxean. Bertsolariak: **Miren**

Amuriza, Onintza Enbeita, Amaia Agirre, Iratxe Ibarra, Maddalen Arzallus eta Erika Lagoma; gai jartzailea: **Maite Berriozabal**.



>> **'Sexualitatearen alde historikoa, eraldatzailea eta pertsonala'**, Saioa Hernández sexologoaren eskutik (euskaraz), martxoaren 7an 10:00etatik 14:00etara, martxoaren 13an 17:00etatik 20:30era eta martxoaren 14an 10:00etatik 14:30era. Tailerrean parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa da, berdintasuna@berriz.org helbidean edo 94 682 40 36 telefonon.

DURANGO

>> **'Raketariak'**, Durangoko Arte eta Historia Museoa, martxoaren 5etik 29a bitartean.

>> **Andragunearen inaugurazio ofiziala**, martxoaren 7an. Andragunea Emakumeen Topagunea; Durangoko emakumei omenaldia, 12:30ean, Pinondo Etxean (Santa Ana plazan); musika kontzertua 'Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna' izenburupean, Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleak, 19:00etan, musika eskolaren areto nagusian; antzerkia **'¿Se puede?'** Mamacrea taldeagaz, 20:00etan, San Agustín kultur gunean.

>> **Lilakrosa**, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa, martxoaren 8an, 12:00etan, Ezkurditik irtenda.

IURRETA

>> **'Buda explotó por vergüenza'**, bideoforuma, martxoaren 2an, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

>> **'Esanen Aduanan'**, literatura eta musika emanaldia, martxoaren 6an, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

Testuak: **Miren Agur Meabe, Leire Bilbao, Yolanda Arrieta**; musika: Esther Gabiola eta Uritze Laka.



>> **Emakumeendako afaria**, martxoaren 7an, 21:30ean, Goiuria erretegiaren. Txartelak martxoaren 5a arte salgai Ibarretxe kultur etxean.

Autobusa ipiniko dabe. Prezioa: erroldatutako bazkideak: 15 euro; erroldatu bakoak: 20 euro. Egun berean, goizago, 20:30ean, marxoaren 8ari buruzko gogoetak, Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, 'Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko argazkia' aterako dabe Goiuria erretegira abiatu aurretik.

ZALDIBAR

- » **Kafe hizketaldia**, berdintasunaren aitzindarien historia, Helmugak antolatuta, marxoaren 2an, 17:30ean, herri ikastetxeko ekitaldi aretoan.
- » **'Cafés La Fortaleza'**, bisita gidatua Gasteizera, marxoaren 4an, 9:00etan, udaletxeko plazatik irtenda; 13:30ean bazkaria izango da; arratsaldean Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa bisitatuko dabe.
- » **'Quiero llegar a fin de mes'**, antzezlan Aztiak taldearen eskutik, marxoaren 6an, 22:00etan, Zaldibarko herri ikastetxean. 14 urtetik gorakoendako.
- » **Afaria eta dantzaldia Ohiergi** musika taldeagaz, marxoaren 7an, 21:30ean, Goierriko auzo etxean. Autobusa doan, 21:00etan, Udaletxe aurretik irtenda; prezioa 21 euro; txartelak marxoaren 14a arte salgai; tokiak: Paularen zokoan eta Txoko-Gozo gozotegian. Marxoaren 2an haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe doan.
- » **Brindisa eta aperitiboa**, marxoaren 8an, 12:30etik 13:30era, Helmuga elkartearen egoitzan (Elizondo kalea 8, bigarren solairua).



28an, 20:00etan, San Agustin kultur gunean. Zuzendaritza musikala eta pianoa: Inaki Salvador; ahotsa: Ainara Ortega; kontrabaxua: Javier Mayor de la Iglesia; bateria-jolea: Hasier Oleaga;



antzezleak: Ana Pimienta eta Asier Hernández. Inaki Salvadorren lan berria aurtengo Donostiako Jazzaldian estrenaitu eben. *Mediterráneo* edo *Txoria txori*, moduko kanta ezagunak joko ditue.

» **Sarkor eta Ezinean** taldeen kontzertua, otsailaren 27an, 22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

» **'Puro Chile'**, otsailaren 27an, 22:30ean, Ateneoan. Sasoi bateko Vulpes taldeko Mamenen proiektu berria.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **'La Ola'**, marxoaren 1ean, 19:00etan, Berrizko kultur etxean.

DURANGO

» **'Mi nombre es Harvey Milk'**, marxoaren 5ean, 20:30ean,



Zugazan. Sean Penn aktoreak aktorerik onenaren saria irabazi dau aurtengo Oscar sarietan. Gus Van Sant da filmaren zuzendaria.

ELORRIO

» **'El reino de los chiflados'**, marxoaren 1ean, 17:00etan; umeendako animazio filma izango da Arriolan. Franz enperadoreak preso dagoen Sissi printzesa salbatzeko bidaia arriskutsuari ekingo deutso.

ZORNOTZA

» **'Las horas del verano'**, filma ikusgai izango da otsailaren 27an, 20:15ean; Zornotza Aretoan.



Otsailaren 27an, 22:00etan

SARKOR ETA EZINEAN

Plateruenean joko dabe talde biek. Sarkorren musika punkrock edo euskal rockaren kutsuak, melodiak eta abiadurak definitzen dau, nahiz eta puntu honetara heldu arte estilo eta bide ugari zeharkatu behar izan dituen. Ezinean taldeak, barriz, disko bi ditu merkaturatu: *Ezinean* (2006) eta *Zuretzat* (2008). Lan barria betiko freskurari eta ideiei eutsiz osatu dabe.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

La Pantera Rosa 2

Zuzendaria: Harald Zwart
barikua 27: 19:00 / 22:00
zapateria 28: 17:00 / 19:30 / 22:30
domeka 1: 17:00 / 19:30
astelehena 2: 19:00 / 22:00
martitzena 3: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia

Il Divo

Zuzendaria: Paolo Sorrentino
zapateria 28: 22:30
Domeka 1: 20:00



Astelehena 2: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Valkiria

Zuzendaria: Bryan Singer
zapateria 28: 22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00



Umeendako zinema

Bonkers

domeka 1: 17:30

MUSIKA

DURANGO

» **'Te doy una canción'**, otsailaren

BOTIKAK

- Barikua, 27**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Zapateria, 28
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / Mugica / Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego / Campillo / San Roma / Balenciaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
Domeka, 1
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Astelehena, 2
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Martitzena, 3
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Eguaztena, 4
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Eguena, 5
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOA
Matiena606 459 988	Abadiño94 621 55 33
Durango Geltokia946 811 001	Berriz94 682 40 36
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK
J.L. Uriarte ..670 402 002	Arriola94 658 31 92
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68
Iurreta946 201 565	Gaszte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

7 **18° BARIKUA** ☀️
Eguraldia ez dau aldaketarik jasango eta eguzkitu mantenduko da. Goizaldeko tenperatura hotza izango da. Lainoguneak egongo dira, baina eguzkiaren lanari esker desageratuko dira. Ekialdeko haizea.

9 **22° ZAPATUA** ☀️
Eguzkia gozatzeko aukera izango dogu oraindino. Goizean zerua urdin mantenduko da, arratsaldean hodeiak ugartuz. Tenperatura maximoak gozo mantenduko dira. Hegoaldeko haizea.

9 **14° DOMEKA** ☁️

5 **9° ASTELEHENA** ☁️

9 **13° MARTITZENA** ☁️

ERITZIA[>]

kolaborazioa

Gutunak

Alkate berriarekin zaharrak berri?

Galdetegi zabala izan zuenez, hainbat gai aipatu zituen Zaldibarko alkate berriak lehengo asteko ANBOTOn. Gurako genuke guk ere horiek guztiak hemen jorratzea, baina, ezinezkoa denez, hiru baino ez ditugu ukituko. Hiru gehi bat.

1. Erantzunik laburrena ezker abertzalearen legez kanporatzeaz eman du. Esanguratsua. "Pena da eurak ez egoitea", dio. Ematen du "ez daudela" ez datorkielako ondo Udalaxera joatea edo ez dutelako nahi. Alderdien Legeaz tutik ere ez. Eurak beste zinegotzi atera genituela ez zaio aipagarri egiten. Gure aukietan jesartzen diren usurpatzaileez berbarik ez. Jakin badaki, ordea, apartheidaren alkatea dena.

2.- Kultur Etxeaz "beti egon dela talka hori" dio, ezker abertzalearen eta euren proiektuen artean. Gezurra. Kultur Etxeaz hitz egiten hasi ginenetik denok geunden ados Elexoste-San Juangoan egiteko. Izan ere, horregatik eta horretarako erosi zen Elexoste eta eskuratu San Juangoa. Beretzat eredugarri den Barrenetxea-Arandoren jauntxokeriagatik aldatu zuten egitasmoa, Atutxak Zaldibarrek ezagutu duen proiektu ganorabakoena aurkeztu eta 600 herritarrek ezezko borobila eman ostean. Harrezkero, ezker abertzalea hasierako adostasuna berreskuratu nahian dabil. Alkateak, berak jakingo du zertan dabilen.

3. Agarre Bizirik alkatearekin biltzeko egin zuen eskariaz "oraintxe bertan geldirik dago" dio. Hori nahiko luke. Plataforma horrek kexua aurkeztu zion Arartekoari Udalak ez ziolako inolako jaramonik egiten, nahiz eta ehunka zaldibartarren oneritzia izan. Arartekoak jakinarazi dio Udalari honetaz zer uste duen. Azaldu dezala alkate berriak.

3+1. Alkate andreak aukera ezin hobea dauka (erraz jarri dio Zaldibarko Josu Jonek) Udalaren eta herriaren egoera hobetzen hasteko; tartean, ezker abertzaleari zor zaion ordezkari eta errespetua onartuz. Guk egin diogu eskaria biltzeko eta gauzak bideratzen hasteko. Prest gaitu elkarrizketarako. Baita gure herri proiektuaren alde borrokatzeko.

Ainara Otaolea, Jon Azagirre eta Eneritz Azpitarte

Martxoaren 1erako planik bai

Duela gutxi, Kataluniako selekzioak momenturako a proposa izan daitekeen iragarkia atera zuen. Espainiar selekzioaren kamiseta zeukan haur batek Kataluniakoa zeukan beste bati futbol zelaitik ateratzeko agintzen zion. Antza, gainean zeraman kamiseta ez zen ofiziala, ez zen legezkoa. Hori ikusita, beste haurrak, elkartasunez, beraiena kendu eta Kataluniako elastikoa zeukanarekin jolasten hasi ziren. Honelakoetan ikusten dugu haurrek ere egundoko lezioak ematen dizkigutela.

Martxoaren 1eko partidarako ere beste horrenbeste gertatu da, baina oraingoan kanpoan utzi dutena Euskal Herriko Selekzioaren kamiseta izan da. Eta jolasean ari ziren gaitzerekoek zer egin dute? Batzuk bazterketa hori txalotu eta besteek aho txikiarekin salatu, kanporatu dutenari bizkerra ematen zioten bitartean. Txalotu zein salatu, denak putreen antzera dabilta legez kanpo geratu den kamiseta horren zati bat eskuratu nahian. Joko zelaitik kanpo geratu diren bozka horiek bereganatu nahian. Putreek ere antzeko zerbait egiten dute: ustelduta dauden gauzak jan ohi dituzte. Baina ez dira konturatu zelaitik kanpo egon arren Euskal Herri-

ko kamiseta ondo bizirik dagoela. Ez daitezela guregana etorri gero! Hemen ustelik badago, horiek beraiek dira-eta.

Duela aste batzuk aldizkari honetan irakurri nuen norbaitek bazeukala martxoaren 1erako plana eginda. Aralar mendira joango omen dela zioen, bertako artzainek konfiantza ematen ziotelako. Bai, nik ere euskal mendiak maite ditut, baina, aukeran, durangarra izanik, Mugarra nahiago, hori izan baita urte batzutan gure bilgunea, ardi antzera gidatzerik behar ez duen bilgunea. Baina euskal mendiak gustuko ditudan arren, asteburu honetarako nik ere badut plana. Espainiako hainbat mendi eta portu zeharkatu eta Galiziara joango naiz. Beste lagun batzuei ere Caceresera, Badajozera, Madrilera, Zaragozara, Andaluziara... joango direla entzun diet. Eta ez gurea maite ez dugulako, kontrakoagatik baizik. Ikaragarri maite dugulako, eta benetako duintasuna toki horietan guztietan daukatelako giltzaperaturik. Duintasunak urrea balio duen garai hauetan, beraz, botoak ere urrezkoak izan daitezen saiatu gaitezten. Martxoaren 1ean duintasunarekin daukagulako hitzordua, urrezko duintasunarekin.

Andoni Lupiañez Mintegi (Durango)

Hondakindegia Gerediaga auzoan ez!

Bagoaz ezagutzen, pixkanaka bada ere, hondakindegia gure auzoari eragingo dizkion kalteen tamaina, administrazioak kalteak ezagutarazten batere lagundu ez badigu ere.

Hondakindegia kontua hasi zenetik, Gerediagako auzotarrok alde batera utzi gaituzte. Ez digute proiektuaren berri eman, ez digute ezer galdetu, Aldundiaren erabakien berri hartzaile besterik ez gara izan. Bizkaiko Aldundiarekin egin dugu topo, eta auzoan zehar ez doan alternatibarik ez dute ezta entzun ere egin nahi.

Garain egin nahi duten hondakindegia kapazitatea 682.300 m³-koa izango da. Gure auzotik egunero 570 kamioi dunper baino gehiago pasatuko dira 55 astetan; 13 hilabetez. Horrek esan nahi du egunero 10 orduz ibiliko direla kamioiak gora eta behera, zarata eta zikinkeria sortzen.

Ulertezina da hondakindegia Garain jartzea eta onartezina bertara heltzeko 190.000 kamioi Gerediaga auzotik igaroraztea.

Lurra aberastasun sozial eta baliabide ekonomiko gisa baloratzen dugunok ezin dugu onartu lur gehiago asfaltatzerik, batez ere, lur horiek nekazaritza lurak badira.

Gu ez goaz neurri orekatzaile eskatzera, ez goaz bide alternatiborik eskatzera. Guretzat nahi ez duguna ez diogu beste inori opa.

Gure auzoaren mesederako eta bertako biztanleen onerako, Gerediaga auzotik ez!

Kepa Bengoa Madariaga

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN

zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Julen Orbegozo

Hauteskundeak

"Politikak niri bost axola; gaur egun ez da arlo horretan ezer aipagarria gertatzen"; Silvioren hitzak egi bilakatu zaizkit beste behin. "Hauteskunde kanpaina izan beharko nuke zutabe honetan hizpide", errepikatzen diot neure buruari. Baina ez du mamirik izan. Badakit Ibarretxek, Lopezek, Basagoitk, Ziarretak, Madrazok, Ezenaarrok, Diezek... guztiak irabaziko dutela (hurrenkeria legeari jarraiki errespetatu dut, badaezpada). Ezker abertzaleak ere irabaziko du.

Zutabea, baina, joan zen larunbatean ezagutu nuen emakume batek merezi du. Gaztea zen. Biak geltokian ginen, autobusera igotzeko prest. Jaioberria zen bere alabatxoa zeukan gurditxo batean. Umetxoa hartu nuen, eskuetan, berak gurdia tolesten zuen bitartean. Sekula ez nuen jaioberri baten hantsa hain gertu sentitu.

Autobusean hizketan jarraitu genuen. Azentu arrotzez mintzo zen. Nongoa zen galdetu nion. "Kanpotarra". Kasualitatez, Durango bizi zela. Autobusa helmugara iritsi zen, baina solasaldia Bilbon zehar luzatu genuen. Ezezagunak izanda, usteak, eritziak eta sekretuak kontatu genizkion elkarriz. Eta baliteke berriro inoiz ez ikustea.

Zuetariko askok zutabe hau larunbatean irakurtzen duzue. Beraz, galarazita daukat botoa eskatzea. Baina horra hausnarketa: politikariak beldurtuta dabilta. Nolabait, ezkutatuta ibili dira. Badirudi, "egingo duguna"-k baino, "egingo ez duguna"-k irabaziko duela.

Esaldi interesgarri bakarra entzun dut egunotan: "helburuak justuak izateaz gain, bideak ere justuak izan behar du". Galtzeko beldurrik ez duen bati entzun nion.

Eta emakume hark ez du sekula zutabe hau eskaini diodala jakingo. Ez duelako euskaraz hitz egiten.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko otsailaren 27a - 8. urtea - 320 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

KIROLAK >



Zaldibarko arkulariak zehatz aritu dira

Joan zen domekan Bizkaiko Arku-tiro Txapelketa –areto-barrukoa– jokatu zen lau mailatan Berrizko kiroldegian. Zaldibarko Arku Taldeak hiru podium lortu zituen. Lidia Cañetek Bizkaiko txapela berritu zuen beste behin emakumeen arku-errekurbatuaren kategorian. Maila berean, Soraya Gutierrez hirugarren izan zen, Bizkaiko txapelketan parte hartzen zuen lehenengo aldian.

Zaldibarko taldearen lana Jose Antonio Aguirrek borobildu zuen; arku tradizionalako kategorian bigarren egin zuen. Maila horretan, Julio Ignacio Ten abantarra izan zen irabazlea.

Gizonezkoen arku errekurbatuan ere Abantoko tiralari bi igo ziren koxka gorenetera; Hilarrio Hernandez gailenera eta Iban Ureta bigarrenez. Aipagarria da, podiumetik kanpora geratuta ere,

Joshe Blancoren lana; zaldibartarrak laugarren amaitu zuen. Azkenik, arku konposatuaren kategorian Julen Velasco barakaldarra izan zen txapeldun; bigarren eta hirugarren Pablo Valles deriotarra eta Luis Miguel Rodriguez barakaldarra sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Karlos Olabarriaga Zaldibarko Arku Taldeko lehendakariak txapelketaren balorazio positiboa

Hiru podium lortu dituzte Bizkaiko Txapelketan; tartean, Cañeteren lehenengo postua

egin du: "Maila onean aritu gara. Entrenamenduetan serio ibili gara, eta hori igarri egiten da gero txapelketatan".

Cañete erraz

Lidia Cañetek, beste behin, berritu egin zuen Bizkaiko txapela. Zaldibartarra, gaur egun, Euskal Herriko txapelduna ere bada bere modalitatean. Olabarriagak aitortzen duenez, "oraintxe ez du areriorik Euskal Herri mailan".

Bestalde, Soraya Gutierrezek orain arte ez du txapelketetan parte hartu. Hauxe zuen lehen aldian, eta emaitza ikusita ez luke azkena izan behar.

Zaldibarko Arku Taldeak antolatutako txapelketa Berrizburun burutu zen. Izan ere, txapelketarako azpiegiturak prestatzeko denbora gehiago zuten Berrizen; "Udalak erraztasun guztiak eman zizkigun", diote. ■ J.D.

24 Sasikoa lehia bizian Dosanporrekin

Orain gu orain zuek, lidertza txandatzen dabilta bi taldeak liga hasi zenetik. Dosanporrena da orain lehen postua; Beraz, Sasikoak hiru puntuak behar ditu Jarrillerosen aurka.

25 Elgoibar hartuko du Kulturalak

Zallarren kontrako porrota ahaztu eta horren aurretiko bolada onari –hiru garaipen errenkadan– jarraipena eman nahi dio Kulturalak; Elgoibar, baina, oso arerio gogorra da.

Sufritzetik igotzeko hautagai izatera pasatu da Sasikoa B

laz mailari eusteko arazo handiak izan zituzten; aurten laugarren daude Transportes Lakunza liderrarengandik puntu bira



Joan zen asteburuan bina berdindu zuten Meatzari Petronorren aurka, etxean. Kepa Aginako

Urtebetean egoera erabat aldatu zaio Sasiko Bri Euskal Ligan. Laz, ozta-ozta eutsi zioten mailari; aurten, aldiz, goiko puntan dabilta. Saillapenean ikusten den aldaketa horren arrazoiak aurkitzea ez da erraza, kontuan hartuta taldea ez dela iaz baino indartsuagoa. Jokalariak euren nabari dutenez, arrazoiak beste bat izan daiteke: Euskal Ligaren maila apaldu egin da. "Laz lehen hirurek dena irabazten zuten eta besteok haien

doinura egiten genuen dantza. Aurten, oro har, maila apalagoa da, eta guk horri etekina atera diogu", dio Maikel Gonzalez taldeko jokalaria.

Kontuak kontu, laugarren daude hiru igotzen diren mailan. Baina igoera ez dago euren baitan bakarrik. Maila bat gorago jokatzen du Sasikoa Ak, eta filialak ezin du nagusien maila berean jokatu. Baina B taldeak baditu itxaropentsu egoteko arrazoiak.

Sasikoa A bigarren dago, liderrarengandik puntu bakarrera; igorarik puntu bakarrera.

Zorigaitzoko 40 segundo

Joan zen astean huts egin zuten nagusiek. Azken 40 segundotan hiru goleko abantaila jan zien Ceramicas Nogalesek. Seinako berdinketa partidua amaitzeko segundo bakarraren faltan jaso zuten. Etzi Jarrillerosen kontra jokatuko dute Landakon. ■ J.D.

Kulturala goi mailan ari da

Durangoko Kulturala oso ondo dabil areto-futboleant. Joan zen astean, Beti Arinen kontrako partidua garrantzitsua aurrera atera zuen (3-0). Talde biak puntuetara berdinduta zeuden. Orain durangarrak bigarrenak dira, Getxo Kantxarengandik hamar puntura; Beti Arini, berriz, hiru puntu ateratzen dizkio.

Kulturala bikain dabil etxean. Orain arteko zortzi partidua irabazi ditu. Kanpoan ere uzta polita batu dute; bost garaipen, berdinketa bi eta porrot bakarra. Etzi, Stilo Berrio Bren kontra jokatuko dute. Bilbotarrak azkenaurrekoak dira, eta etxean partidua bi bakarrik irabazi dituzte. Beraz, Kulturalak hiru puntuak batzeko norgehiagok du biharkoa.

Elorriok nagusi dela erakutsi du



K. Aginako

Abadiñoren kontra jokatutako derbian Elorriok hiru puntuak eraman zituen Astolatik (0-3). Orain, Elorriok 13 puntuko aldea du Fruiz eta Abadiñorekiko. Berriz eta Extremeñok jokatutako beste derbian binako berdinketarekin bukatu zen partidua.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto-futbol entrenatzailea



Entrenatzaile izateko arazoak

Areto futboleant gabiltzenok badakigu kirol honetan oso gaxa dela taldeak entrenatzeko jentea topatzea. Arazo honi, entrenatzaile ikasketen arduradun direnek erraztasun gitxi emoten dabela gehitu behar joko.

Orain hile batzuk sekulako barria jaso genduen. Bazirudien federazioak eta Bizkai-ko entrenatzaile eskolak ikasketak emongo zitueela. Udan hasi ziren proba fisikoak egiten, eta han agertu ginen talde txiki bat areto futbola bultzatzeko gogoz. Baina hasteagaz bat kale. Ez eben areto futboleko probarik egin, futbol probak baino, eta behin 'probak' eginda, sorpresa: ez eben segurtatzen ikasketak aterako zirenik, talde "txikia" zen-eta.

Hilabeteak igaro, eta ikasketen barririk ez. Hau ikusirik, talde "txikia" osatzen genduenok, geure kabuz ikasketak aurrera ateratzen saiatu ginen. Durangoko institutuan, kirol ikasketak emoten zitueenekin batu eta federazinokoen ikasgai berberak jasotzeko akordua lortu genduen, irakasle onekin eta diru gitxiagoren truke.

Dena hasteko prest zegoenean, federazi-noaren eta entrenatzaile eskolaren barriak jaso genduzen, guk antolatutako ikasketak ezerezean izteko. Orain, ikasketak eurek gura daben modura antolatu ditue, nahiz eta talde txikiagoa izan. Badirudi ez dabela galdu gura urrezko arraztak emoten dituen oiloa.

Areto futbola lagundu ala dirua irabazi? Hor dago kontua: Boikota egin ala jasan?

Adituarentxokoa

Yoldi eta Aldape ondo hasi dira

Biharko Izarrak pilota txapelketako hiru jardunaldi jokatu dira orain arte, eta, oro har, partidua parekatuak eta onak irten dira. Domekan Yoldik eta Aldapek, partidurik desorekatuenean, 22 eta 11 menderatu zituzten Elezkan eta Castillo, eta koefiziente ona lortu zuten.

Lehenengo partiduan Intxaustik eta Otxotorenak garaipen estua lortu zuten Angita eta Mendiuetaren aurka (22-21). Egueneko lehenengo partiduan ere emozioa izan zen protagonista nagusi; Ollok (iazko txapeladuna Beroizekin batera) eta Peretek 22-20 irabazi zuten Yoldi eta Cecilioren aurka. Bigarren partiduan Ricok eta Merino II.ak txapelketako lehenengo puntua batu zuten Epelde eta Larrinaga 22-15 azpiratuta.

Atzo gauean jokatu ziren hirugarren jardunaldiko partidua biak. Emaizak www.anboto.org webgunean ikusgai daude.

Ahazteko urtea eskubaloian

Elorrio eskubaloi taldeak amaitu du liga erregularra, eta, ez dago balorazio onik egiterik: 14 partidutik 12 galdu eta bi berdindu dituzte. Ondorioz, Euskadiko Txapelketako Preferente Mailan azkenengo geratu dira.

Aipatu beharra dago azken partiduetan arazoak izan dituztela lesioekin. Esaterako, joan zen asteburuko azken partiduan zortzi jokalaria bakarrik zeuden jokatze moduan, eta horietako bi atezainak ziren. Beraz, aldaketa bakarrarekin egin zioten aurre Jarrilleras taldeari, eta galdu egin zuten (23-30).

Aste Santua eta gero Euskadiko Kopa jokatuko dute. Preferente eta Senior A mailetak taldeak sartzen dira zozketan. Beraz, Elorriori bere mailako edo maila bat goragoko taldea egokitu dakiok. Bitartean, ligako azken laurek bigarren fasea jokatuko dute. Multzokide izango ditu Leizaran, Bera Bera eta Asador Basusta Pulpo.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Handien borrero izaten jarraitu nahi du Durangoko Kulturalak

Jon Condek zaintiratua izan zuen Zallaren kontra, eta ezin izango du jokatu bihar



Kulturalak Elgoibarren eta Portugaleteren kontrakoak ditu hurrengo konpromisoak. J. Fernandez

Zallaren kontrako estropezua ahaztuta, horren aurretik zera-man goranzko bidea berreskuratu nahi du Durangoko Kulturalak. Elgoibarrek ez dirudi areririk egokiena sailkapenean hirugarren dagoelako, baina azken aldian durangarrak talderik indartsuenen kontra ari dira mailarik onena ematen. Hortxe ditugu Zamudioren eta Lagun Onaken kontrako garaipenak, adibide moduan.

Zallaren kontrako porrotak (2-1) ez du aitzakiarik. "Ez ginen egon partiduan", dio Rikardo Txintxurretak: "Irabazi beharreko partidua galdu egin genuen". Eta, hala ere, puntu bat urratuko zuten, Kulturalako jokalariek baloia eskuaz eraman zuela irizita, epaileak gol bat baliorik gabe utzi ez balie. Partidua batera taldeak Jon Conde ere galdu du partidu batzuetarako. Zaintiratua egin eta herrenka erretiratu zen.

Zamudio eta Lagun Onak oraintsu menderatuta, bihar Elgoibar dute bisitari

Elgoibar inork gutxik espero zuen maila ematen ari da aurtten. Eta jadanik ezin daiteke hartu kasualitate moduan. Joan dira 26 jardunaldi, eta hirugarren daude, lidertzatik puntu bakarrera. Hiru partidu bakarrik galdu dituzte liga osoan. Merezimendu osoz daude dauden tokian.

Portugalete bigarren sailkatua bisitatuko dute datorren astean

"Kontraerasoan jokatzea gustatzen zaie; defentsan tentuz ibili beharko dugu"

Txintxurretak badaki nondik etorri daitekeen arriskua: "Kontraerasoan jokatzea gustatzen zaion taldea da. Aurrelari biziak eta azkarrak ditu. Beraz, atzean ezin dugu une batean ere deskuidatu".

Baikortasuna

Kulturala irregular dabil aurtten, baina jokoa nabari zaio. Ikusten da inspiratuta daudenean edozein talde estu hartzeko kapaz direla. Horregatik, Txintxurreta baikor dago biharko partiduari begira: "Guk gure aukerak izango ditugu, seguru nago. Aukera horietan asmatzea da gakoa".

Datorren asteburuan Portugaleten jokatuko dute. Portugalete bigarren dago, liderrarekin puntuetara berdinduta. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Elgoibar
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Berriz - Gatika

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Iurretako - Zamudio B

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Elorrio - Lekeltio B

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

Extremeko - Bermeo B

Domekan, 17:30ean, Tabiran

Ezkurdi - Ermua B

Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

ARETO-FUTBOLA

LEHEN NAZIONAL B MAILA

Sasikoa - Jarrilleros

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe - Freunde

Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian

Presion Break - Bermeo

Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga - Mendibeltz

Zapatuan, 16:15ean, Tabira kiroldegian

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Durango Ilarduya - Irun

Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan

Elorrio - Mungia

Kakarraldo

Zapatuan, 16:30ean, errugbi zelain

SASKIBALOIA

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Anbotopeko - Salesianos

Zapatuan, 18:00etan, Tabira kiroldegian

Tabirakok Arrasaten hasiko du jaitsiera fasea

Tabirakok Mondragon Unibertsitatearen kontra jokatuko du, martxoaren 7an, jaitsiera faseko lehenengo partidua. Durangarrek multzoko goialdean ekingo diote faseari, sei garaipen eta porrot birekin. Hamarreko multzotik laugarren daude Bidegintzarekin eta Urdanetarekin berdinduta; hirugarrenak eta bigarrenak, hurrenez hurren. Bide Bide dago lehenengo zazpi garaipenekin.

Anbotopekok, Julza-Zalduak eta Tabirakok ere martxoaren 7an ekingo diote hurrengo faseari.

Kasu horretan, hirurak daude Lehen Erregionaleko igoera fasean. Anbotopekok eta Zalduak bosna garaipen eta hiruna porrotekin ekingo diote, Anbotopekok bigarren eta Zalduak bosgarren; aldeko eta kontrako puntuak hartu dira kontuan. Tabirakok sailkapeneko azkenengo tokian dago garaipen birekin.

Tabirakok eta Anbotopekok derbia jokatuko dute lehen jardunaldian, Landako kiroldegian. Zalduak Muskizen kontra jokatuko du etxean. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak

1- Amurrio.....	50
2- Portugalete.....	50
3- Elgoibar.....	49
4- Gernika.....	46
5- Beasain.....	44
6- Lagun Onak.....	44
7- Zamudio.....	38
8- Leioa.....	35
9- Zalla.....	35
10- Santurtzi.....	34
11- Kulturala.....	33
12- Amorebieta.....	32
13- Baskonia.....	32
14- Arenas Getxo.....	31


15- Laudio.....	28
16- Alaves B.....	24
17- Zarautz.....	23
18- Eibar B.....	23
19- Ordizia.....	23
20- San Ignacio.....	16

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Vitoria.....	15 (+337)
2- Baskonia Fund.....	14 (+147)
3- Logroño.....	13 (+214)
4- Ardoi.....	12 (+101)
5- Arabako EHU.....	10 (+46)
6- Tabirako.....	9 (-25)
7- Bide Bide.....	8 (-59)
8- Pamplona UPNA.....	4 (-114)
9- Goierri-Verkol.....	3 (-380)
10- Getxo.....	2 (-267)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Abaroa.....	17 (+207)
2- Bera Bera.....	16 (+323)
3- Gernika.....	15 (+210)
4- Ardoi.....	14 (+154)
5- Atletico SN.....	13 (+46)
6- Tabirako.....	12 (+129)
7- Obenasa.....	12 (+46)
8- Getxo.....	12 (+66)
9- Arabako EHU.....	10 (+5)
10- Irlandesas.....	7 (-167)
11- Uni. Navarra.....	7 (+2)
12- Las Gaunas.....	6 (-190)
13- Artieda.....	6 (-137)
14- Easo.....	4 (-226)
15- Loiola.....	3 (-216)
16- Astigarraga.....	3 (-252)



Durangoko Kulturalak 34 gol sartu eta 32 jaso ditu orain arte

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

UNDARRI BIKE

Bizikleta salmenta eta konponketa.

Bilbarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

94 681 78 08
www.undarribike.com

AMALURRA[>]

Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Durangaldeko Mugikortasun Plana garatzeko lanak hasi ditue

Hainbat fase izango ditu planaren osaketak, eta ekainean bukatuta egotea itxaroten dabe

Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren Plana garatuko da datozen hilabeteetan, Durangaldeko Udaltalde 21en eskutik. Tokiko Agenda 21en baitan herrietan egindako foroetan, mugikortasuna kezka gehien sortu dauen gaietariko bat izan da, eta horretara dator aurreko astean aurkeztutako plana.

Egitasmo hau, orain arte Durangaldeko herri batzuetan burutu izan da, baina eskualde mailan egiten den lehenengo aldia da. Bere helburua, mugikortasunaren inguruko azterketa orokorra egin, eta horren eremu bakoitzean hartu beharreko neurriak zehaztea da, datozen zortzi urteetarako programa praktikoa bat sortze aldera.

Durangaldea leku estrategikoan kokatuta dago, eta horrek bertako errepideetatik makina

bat ibilgailu pasatzea ekartzen dau. Garraio arazoa ez eze, autoen kopuru handiak airearen kalitateari be eragiten deutso. Horixe dago mugikortasunaren gaineko hausnarketaren arrazoia.

Hainbat fase

Plan barria garatu ahal izateko, lau fase edo etapa bereizi ditue. Lehenengo urratsak barne lanean emon ditue dagoeneko, urtaririlean hasita. Modu horretan, eskualdean eta beste erkidego batzuetan egin diren antzeko azterketen datuak bildu ditue, oinarri edo erreferentzia modura.

Bigarren faseari egunotan ekin deustie; hainbat faktore kontuan hartuz diagnostikoa egiteko etapa, hain zuzen be. Diagnostiko horretan, kotxeen joan-etorriak, kopuruak eta aparkatze-

ko aukeratutako lekuak ezagutu ditue, adibidez. Oinezkoen eta bizikletaz dabilzenen datuak be aztertuko ditue, baita garraio publikoaren eskaintza be. Horretaz gainera, istripuak eta kutsadura txikitzeke zer egin leiteken kontuan hartuko dabe.

Hirugarren pausua jasotako datu guztien ondorioak atera eta gero ekintza plana idaztea izango da; epe labur, ertain eta luzean egin beharreko ekintza multzoa zehaztuko dabe, beraz.


Parte-hartzea

Bestalde, laugarren atala herritarren eritzia jasotzea izango da. Horretarako, inkestak egingo ditue kalean eta herri bakoitzean eztabaidarako bi foro antolatuko ditue. Herritarren laguntza eskatu dabe Udaltalde 21ekoek.

Egitasmo hau Durangaldeko herri batzuetan burutu izan da, baina eskualde osoan garatuko den lehenengo aldia da

Udaltalde 21ekoek Durangaldeko herritarren laguntza eta parte-hartzea eskatu dabe





berriarekin

Munduko ZINEMA euskaraz



BOST FILM:
Brokeback Mountain
Ekialdeko promesak
Gizakien seme-alabak
Ezkutuko plana
Lorzain leiala



Maitasun istorioak,
zientzia fisikoa,
akzioa...
kalitateko zinema

Otsailaren **28**tik aurrera,
larunbatero, zure kioskoan **BERRI**arekin



+ 4,90€

Harpidedunentzat, bilduma osoa 19,40€
Eskaria egiteko: 943-30 43 45





Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

IRAGARKIAK

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko: Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatuzeko honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitate eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Lan Harremanetan diplomadun neska durangarra administrari, kometzial, harreragile... moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Garbiketan edo/eta ume zein adinekoak zaintzeko prest nago. Egunduz edo osoan. Tel.: 680 302 861

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Durango. Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatze-ko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m², 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintearrekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Elorrio. 67 m²-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Kanpora ematen du. Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

Elorrio. Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe bakarra salgai Marietan (Araba). 200 m² ditu. 5 logela, egongela beheko suarekin, 3 komun eta sukaldea. Garajea 2 kotxerendako eta lorategia be badauka. Tel.: 628 450 965 edo 616 969 920

ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Pisua alokagai, guztiz egokituta: 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Eguzkitsua, herri erdian. Tel.: 615 746 231

Apartamentua alokagai Marina Dorren. Urtean zehar edozein

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarteak

Gazte arlorako laguntzailea behar du. Lanaldi erdiko kontratua, berehala hasteko. Tel.: 94 620 19 18 berbaro@berbaro.com

ANTZERKIA gustoko

baduzu anima zaitetz Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera arrapaladan@hotmail.com 635 74 49 71

LANA

ESKAERAK

Ikastolen elkarteak begiraleak behar ditu 2009ko aisialdi programarako. Beharrezkoa da euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelesa menperatzea (ingeleszko udalekuen kasuan). Apirilaren 5a baino lehen eman behar da izena. Informazioa: www.biekastola.net

Abadiño. irakasle bat behar da antzerki talde batean umeendako tailerrak antolatuzeko. Derrigorrezko baldintza da euskaraz jakitea. Tel.: 666 379 572. Deitu 13:00etatik 15:00etara. Erlantz.

Durungaldea. Eskualdean zabalduko den hortz-klinika batean odontologia laguntzailea behar da. Derrigorra da euskaraz jakitea. Esperientzia baloratuko da. Bidali CVak Abadiñoako Txirri-Txirri gozoki dendara (Zeletabe 8c behean).

Pertsona euskalduna behar da dendari lan egiteko. Tel.: 943 77 00 34 / 943 77 13 52

Durango. Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazio luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Blend Shapes teknika behar da 3Dko luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa eskaintzen da. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Set Up teknika behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Testuriztzailea behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Logopeda behar da ordezkapena betetzeko. Lanaldi erdia. Derrigorra da diplomatura izatea eta euskara menperatzea. Erreferentzia: 656. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Automoziozko elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Mallabia. Merkataritzako agentea behar da bezeroei bisitak egiteko. Derrigorra da 25-40 adin tartekoa izatea, Durungaldean bizitzea eta gida-baimena. Erreferentzia: 1.300. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

ESKAITZAK

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 645 718 030

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka, gauz edo asteburuetan. Tel.: 650 102 636

Andra euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak eskolara eramateko prest. Tel.: 627 468 002

Haur hezkuntzako ikasle euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko eta lanetan laguntzeko prest. Tel.: 625 707 831

Andra euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 94 620 11 85 eta 699 745 723. Ines.

Astelehenerik ostiralera bitartean garbiketak egin edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 055 978

Neska gaztea Elorrioren portala garbitzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 657 461 674

Mutil euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldetan eta asteburuetan. Tel.: 660 464 851

Turismo ikasketadun neska turismo eta ostalaritza arloan lan egiteko prest: hotelak, agentziak, tabernak... Tel.: 646 841 206

Neska umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo tabernan lan egiteko prest. Tel.: 690 370 178

INMOBILIARIARIK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 22
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK


- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txaleto bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baseria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txaleto bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekotxeko lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Iurreta: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Berriztatua, hobekuntzekin.
- Iurreta: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia despentsarekin, 3 logela, 2 komun eta 2 balkoi.
- Iurreta: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekua. Guztiz berriztatua.
- Iurreta: Halla, egongela, jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta ganbara.
- Juan Itziar: Halla, egongela, sukalde, komuna eta 2 despentsa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukalde, 2/3 logela, komuna eta balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukalde, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde, 2 logela horma-armairuekin, komuna eta ganbara. Guztiz berriztatua eta erdi jantzia.
- Mañaria: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta 12 m²-ko trastelekua. Oso egoera onean. Igogailuarekin. Eguzkitsua.
- Mikeldi: Halla, egongela, logela eta balkoia.
- Monago Torre: Halla, egongela-jangela, 3 logela, 3 komun eta balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Monago Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia eta ganbara. Oso egoera onean. Igogailuarekin. Eguzkitsua.
- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. Berria. Oso egoera onean.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Euskal behi basak	▼	Fruitu basa	▼	Izan ... izaten ahal zen
	Benetan		Noka, nien		
	▶		▼		▼
	Tuberku- losi	▶			
	Kontso- nantea				
Ezin higituzkoak	▼	Toka, diet	▶	▼	
* Irudiko mendia		Erlakizten			
▶		▼	Herri nafarra	▶	
			Frantziako hiria		
Eskutitzak	▶		▼		
Pisu unitatea					
▶				Neona	▶
				Lehorra	
Izan, ukan	▶			▼	Bokala
Larru					Eako biztanle
▶				Dagoen	▶
				Toka, doa	
Eutsia	▶		▼		
Indioa					Portu
▶		Giza nortasuna eman (Errep.) Txori mota	▶		▼
Nor, pluralean	▶	▼	Nafarroako herria	▶	
Ikuskizun			Sufrea		
▶			▼		

SUDOKU >

1

8				7		
	9	1	5	3	6	
	6	2				8
		9		8		
	7	5	2		9	8
			4			9
1					4	2
	4	9		2	7	6
		7				5

2

1					5	3
	5		3	7		4
		6				1
	9				4	6
7		2			9	
	8			4	1	9
5			3	2		
	6		9			

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Zelako burukomina, ezta? Zeuk be galanta emoten dozu, ba, hainbeste kexagaz. Hartu egizu aspirina bat, on egingo deustu-eta.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Zure buruagazko estimu handiagooa izan beharko zeunke. Ez dozu konfiantzarik, eta horrek bizimodu- duan eragiten dau.

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Maitasun kontuetan ez joatzu bape txarto. Horrek ez dau esan gura lau haizetara zabaldu behar dozunik.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Batzuendako urtarrileko aldapa urte guztian luzatzen da. Hobeto ibiliko zara hemendik aurrera, baina dirua soberan be ez dozu edukiko.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Haserraldi txiki baten erruz hainbeste denporako hartu-emona galdu behar dozu? Saiatu datozen egunotan arazoa konpontzen.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Masokista zarella emoten dau. Medikiak geldirik egoteko esan, eta zuk guztiz kontrakoa egin. Ez daukazu erremediorik!

Libra
irailak 24 - urriak 23
Telebistako *Fama* saioa gogoz jarraitzen dozu. Kontuz, baina, protagonisten mugimenduak errepikatzeagaz...

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Lanagaz ez zagozela gustura? Bada ANBOTOn badaukazu soluzinoa, begiratu iragarkien atalean eta ia zortea daukazun!

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23
Kaletik zoazenean, denek zeu begitzen zaituen inpresinoa dozu. Zu ez zara, ordea, munduaren erdigunea. Ekin zeureari.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Ez deusue inoiz esan sekulako gibelak daukazuzela? Zuk daukazu trankilidadeagaz, ez zara bape txarto bizi, ez.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Gustura ez bazagoz, hoba berari egia esatea. Modu horretan lagunak izango zarie, eta ez da gitxi. Probatu egizu aste honetan.

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Hilabete barria, denpora barriak. Eta laster udabarria be. Ez pentsatu beti gauzak txarto irtegan direnik!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Marek del Valle Czuchrak bihar, otsailaren 28an, zazpi urte egingo ditu. Zorionak eta mosu handi bat lurretako bigarren familiaren partez.



Mirari Zugazartazak otsailaren 28an 13 urte egingo ditu. Familia osoaren partez, mosu handi bat. Aupa gure Mirari!



Zorionak **Oier**, familiakoen partez. 13 urte ez dira egunero egiten, beraz, otsailaren 29a ospatzeko asteburu osoa daukazu.

SOLUZIOAK

I	R	A	S	U	K	I
V	R	V	.	K	V	.
U	R	O	N	.	N	I
.	V	O	Z	O	R	.
N	D	.	L	V	Z	V
E	.	I	K	U	D	E
E	N	.	V	O	L	I
K	V	N	U	L	U	G
E	R	E	Z	.	Z	I
T	V	E	I	Z	.	H
I	S	I
Z	E	N	A	B	E	N
.	B	.	B	.	.	.

1

9	2	8	7	4	7	2	9
5	3	4	6	1	2	7	8
6	1	7	8	3	5	3	6
2	8	6	4	5	1	3	7
3	7	5	2	6	9	8	4
1	4	6	3	7	8	2	5
1	4	6	3	7	8	2	5
7	6	1	9	4	4	8	3
4	1	5	8	3	6	7	2
8	5	3	6	2	7	1	9

2

4	1	6	7	9	8	3	2	5
5	9	7	3	2	1	6	8	4
3	8	2	5	6	4	1	7	9
7	6	1	2	4	5	9	3	8
2	5	8	1	3	4	6	7	9
8	4	3	6	7	9	5	1	2
9	2	5	1	3	7	8	4	6
6	3	4	8	8	2	7	1	6
1	7	4	9	6	8	2	5	3



Zorionak, happy birthday, felicidades **Nahikari**, lankideen partez. Martxoaren 2an 26 urte beteko dozuzenez, ea kafetxo bat ordaintzen deuskuzun.



Ikerrek otsailaren 24an zortzi urte egin zituen, eta **Anderrek**, barriz, otsailaren 25ean bederatzita urte. Lehengusu bi honeei zorionak eta besarkada handi handi bat bidaltzen deutse familia osoak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Eskontzak, jaunartzeak, enpresako bazkariak... Eguneko menua, karta, menu bereziak.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko menua 11€

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02



J.L. Bakedano
Zinegilea

Von Humboldt

Erromantizismoko filologo, poeta eta politikari alemaniarra. Euskal Herrira egin zuen lehen bidaian, 1799an, bere emazte Carolinarekin, bere bi semeekin eta Gropius margolariarekin etorri zen. "Zerbait piztu zen jakintsuaren kontzientzian: hizkuntzak ikertzeko barne bulkada jarraitzeko erabakia, herrien izaera eta nortasuna ardatz. Euskara izango du bere ikerketen oinarri. Desiraturiko argi berriaren iturriak hemen sortu behar zuen. Beharrezkoa zen euskara ikertzea Europako hizkuntzen sorlekura iristeko" (Farineli, A.: *Guillermo de Humboldt y el País Vasco*). 1801eko apirilean etorri zen berriro Euskal Herrira, Guillermo Bokelmann adiskidearekin oraingoan.

1817an eta 1821ean Euskal Herriari buruzko bi saiakera argitaratu zituen. Bere teoria ausarta, euskara hizkuntza europarren artean zaharrena dela eta Euskal Herria zeltak eta arioak etorri aurreko Iberiako herri primitiboen ordekaririk antzinakoena dela dioena, mendien, erreken, haitzen, ibarren, herrixken eta sendien izenak patxadaz aztertu osteko ondorioa da. Euskargatik dio eraketa perfektuenetakoa duen hizkuntza dela, harrigarria bere indarragatik, hitzen egituragatik, esamoldeen bizkortasunagatik eta ausardiagatik. Euskal Herria Humboldtren irudimenean eta bihotzean geratu zen, ametszko lur moduan.

Euskarari buruzko bere teoriarekin Larramendirena, Astarloarena eta Errorena sostengatzera dator Humboldt; euskara Espainiako hizkuntzarik zaharrena dela sostengatzera, Menéndez Pelayok hori atsegin ez badu ere.

"Dendarako eta atletismorako denpora uztartzen saiatzen naz"

Martin Petitek orain dela 40 urte zabaldu eban Traña Matienan egunkari eta aldizkari denda

Bezeroak sartzan eta irtetzen diren bitartean elkarriketatu dogu Martin Petite. Traña-Matienan daukan denda, egunkari eta aldizkariak gainera, askotariko produktuak saltzen ditu. Fotokopiak ateratzen dabilela barrietaldia hasi dogu. Dendako saldaitei buruz berba egiteaz gainera, atletismoari buruz be galdetu deusagu. Sei urte be ez dira lasterketetan parte hartzen hasi zela. Ibilbide laburra, baina opa-roa. Bezeroek, baina, beste zeozertaz galdetzen deusie. Joan zen astean lapurretan sartu jakozen.

Aktualitateakagintzen dauenez, joan zen aste-kolapurretagaitik galdetu behar deusut. Sustoa pasatu jatzu?
Oraindino ez. Goizeko 06:30ean egunkariak ordenatzen nenbilela gizon batek tabakorikneukan galdetu eustan, e t a

irten egin zen. Ostera be itzuli zen egunkari bila, eta halako baten mailuka atera eustan. Mailuka kendu eta lurrera bota neban ahal izan neban moduan. Arineketan alde egin eban eta dardarka gelditu nintzen, mailuka eskuetan.

Bezeroek balentria izan dela esaten deusue.

Ez, erreazkino bat baino ez zen izan. Aukera gehiago be ez eustan emon.

Zelan sortu jatzun denda zabalteko aukera?

Soldadutzatik itzultzean enpresa baten lan egiten nebala, hau traspasoan ikusi nebanez, hartzea erabaki neban. Geroago emazteak eta biok bigarren dendazabaltzea erabaki genduen.

Hemen denerik saltzen dozue.

Aldizkariak, egunkariak, liburak, eskola materiala eta abar.

Saldu dozun gauza arraroena?
Bildumagarrietan askotariko produktuak merkaturatzen dira: tximeletak, mineralak, tartak egiteko moldeak, Athleticeko aiztoak...

Aldizkari bitxiak be kaleratzen ditue gero!

Akordeoia jotzen ikasteko aldizkariak, esate baterako, ez dira larregi saltzen.

Prentsa arrosakoak ostera...

Bai. Lecturas, Hola... horreek asko saltzen dira. Erreportaje bereziren bat-edo dagoen astean, gehiago igartzen da.

Kiniela, loteria eta halakoak be saltzen dozuz.

Krisiagaz diru gitxiago gastatzen bada be, geroago eta jente gehiagok jokatzen dau. Loteria kontutuan asko igartzen gabilz.

Sariren bat ?

1996an, kiniela baten "pleno al quince" bat emongenduen. Bezero batek sasoi haretako 100 milioi pezeta irabazi zituen.

Irabazlea ezaguna zen?

Bai, eta jatetxe batera gonbidatu gintuen. Emaztea eta biok saria irabazi...

bazi eban bikoteagaz joan ginen Mendigoikoara.

Atletismoan jarduten dozun arren, txirindularia izandakoa zara.

Orduko errekorra egin neban Berrizko belodromoan. Lagun batek istripu batean bizia galdu eban, eta beldurra hartu neustan. Iloba atleta izanik, haren lasterketak ikustera joaten nintzen, eta halantxik hasi nintzen atletismoan.

Sei urte baino ez daroazuz atletismoan, baina bide luzea egin dozu denpora gitxian.

Munduko Txapelketan parte hartu neban Donostian, eta oso esperientzia polita izan zen. Proba herrikoietan, Zegama-Aizkorri eta beste hainbatetan parte hartu dot. Sari ugari irabazi dot.

Santoñan egindako lasterketa "berezia" izan zela esan leiteke.

Mugarra triatloi taldekook Duesoko kartzelara gonbidatu ginduzen, presoekin duatloi lasterketa bat jokatzerara, eta irabazi egin genduen.

Ordutegi aldetik, gatxizango dozu denpora ateratzeko.

Goizeko 05:30ean zabaltean dot denda, asteko egun guztietan. Asteburu arratsaldetan baino ez dot libre hartzen. Denpora gitxi izaten dot, baina zeozer gustuko dozunean...



Martin Petite

Petite dendaren jabea

60 urte ditu



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Matrikula 2009ko otsailaren 26tik martxoaren 18ra arte egin ahal izango da.

MATRIKULA LIBREA 2008-2009

MATRIKULA ON-LINE BURUTUKO DA:

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako web orriaren bidez:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

(Ikastetxeak eta ikasketak/Hizkuntzaren Irakaskuntzak/Berriak)

Matrikula zelan burutu, hizkuntzak, maila eta eragin-eremuari buruzko informazio gehiago jasotzeko:

www.eoidurango.net

